




ANASTASIO ALBISU

ANASTASIO

ALBISU

AURKIBIDEA

Anastasio Albisu	5
Txomin Arlote	13
Zaldun gaztea eta Amaia!!	25
Prakax...! Gertaera parregarria...!	33
Yaneta	43
Etxebeltz'ko nagusla...!	59
Easo = Donostia...!	67
Pernando Amezketarra	79

ARGITARAPENAK



Euskadiko
X. Euskal
Antzerki
Topaketak
Azpeitian



Argitaratze urtea: 1992

Argitarapena ez dago salgai

Argitaratze honen zuzendaritza:



Diseinua eta irudiak: **Alberto Piñero**

Anastasio ALBISU Ayerdi, 1915. urteko Martxoaren 27an Lazkaon jaio zen.

Apez ikasketak egitera 12 urterekin Saturraranera joan zen eta han 4 urte igaro ondoren Gasteizeko Apeztegian ikasketak jarraitu zituen.

Gerla hasi zenean Anastasiok soldaduskarako sasoia zuen eta gerla garaia Donostian igaro zuen. 1939. urtean Bergaran egin zen apaiz. Zoritzarreko gerla amaitutako urtean.

1943. urtean 28 urte zituela Azkoitira joan zen kristau fedea zabaltzera eta irakatsitzera. Geroztik Azkoitiako herrian bizi da.

Euskarazko zaletasuna aitaren dotea izan du. Anastasioren aita euskarari zion maitasuna eta errespetoa bere semeari irakatsi zion Apezgaitegirako eskeintzen zion altxor horri eutsitzeko aholkatuaz. Geroztik apezgaitegitik egindako eskutitzak Lazkaora euskarazkoak izan ziran.

Gasteizko apezgaitegian Anastasio ikasle zen aroan euskal giroa ezin hobia omen zegoen Kardaberaz bazkuna zela bitarteko, igandea iristen zenean Apezgaitegiko bazkide euskaldunak bildurik lantxo zenbaiten irakurketa eta ondoren irakurritako lanen azterketa kritikoa izaten omen zuten. Euskal giro honek Kardaberaz bazkunaren konportak zabaltzen ditu eta elkarte honen barruan beste Kardaberaz elkarte txiki bat prestatzen dute eta aldizkari bat argitaratu ere, elkarte berri honen arduraduna Arizmendiarieta izan zen. Euskarekiko giro der hau, beste herri ekintza asko bezla 36ko gerlak eten zuen.

Anastasio 43an Azkoitian kokatzen delarik eleizbarrutiko ekintza guztiak euskaraz antolatzen hasten da: Sermoiak, idatziak, batzarrak... etabar. Azkoitiarrak Kristau fedea euskaraz bizitzen dute. Aurrez herri honetan euskeraz eleiz ekintza gutxi egiten ziren, eta aldaketa honek bateri baino gehiagori ezpainak zimurto zizkion, hau hobeto ulertzeko adibide bat jarriko dut: Anastasioren zilar eztaiak zirela eta Azkoitiarrak GARTXI-XIMENO antzerkia taularazten dute eta herrian antzestu ondoren Zarautzen antzesteko deialdia izan zuten baina bertan antzestea galerazi egin zieten. Ohartu behar gera Francoren garaletan gertatu zala.

1989. urteko Ekainaren 29an Azkoitiko Udalak Aho batez AZKOITIAko SEME izendatu zutela eta Abuztuaren 16an Herriko plazan SEMETZAKO AGIRIA Ramon Unanue Alkate Jaunak aureskua dantzatu ondoren eman zion.

ANASTASIO ALBISU-K EGINDAKO IDATZ-LANAK
GARAIA ETA ERABILITAKO ITURRIAK

ANTZERKIAK:

1935. urtean, Gasteizko Apezgaitegian, sariketa bat izan zen. Sariketa hau Mixio-Bazkunak antolatu zuen eta Mixio antzerkitxo bat bertara bidali behar zen. Lanak euskaraz aia gazteleraz aurkeztu zitekeen. Anastasiok "NI EZ KRISTARRA" antzerki liturjikoa euskaraz bidali zuen; antzerki honen giroa Berriotxoaren martiritzan oinarri tua dago. Antzerki honi lehenengo saria eman zioten eta 1935 urteko Abenduaren lehenengo igandean Gasteizko Apezgaitegian antzestua izan zen.
1936. urtean GAROA antzerkia. Domingo Agirreren Garoan hitzez-hitz oinarritzen da. Eta urte berean NIEZ NESKAZAR komedia Herri ipuin batean oinarritutako antzerkia ere idazten du.
1944. urtean TXOMIN ARLOTE komedia idazten du.
1945. urtean GABON-GAU antzerki liturjikoa idazten du.
1954. urtean Arantzazun antzerki lehiaketa bat antolatzen dute eta Anastasioren MESEDERIK AUNDIENA izeneko komediak lehen saria irabazten du.
1955. urtean OGI TA ARDO, EDUARDO komedia idazten du, Marcelino Pan y Vino filmean oinarriturik.
1958. urtean ON EGITEAN DAGO ZORIONA gaia maitagarri ipuiari oinarritutako komedia.
1959. urtean LOIOLA-XABIER, bizitzazko antzerkia lau ekitaldietan prestatzen du.
1960. urtean GARXI-XIMENO, bizitzazko antzerkia hiru ekitaldietan antolatua
1961. urtean PERNANDO AMEZKETARRA komedia idazten du.
1965. urtean LEEN BEAR ZUEN komedia idazten du. Urte berean Peñafiorida Kondearen "El Borracho Burlado" opera komikoa euskarara itzultzen du "MOSKORRA PARREGARRI" izenarekin eta modu honetan Anastasiok agiriari ezartzen du Peñafiorida Kondeak euskalkiei buruz zion ez zela sakon eta egokia. Hori ikusteko irakurleak berak epai dezan Peñafiorida Kondeak euskalkien gai honi buruz idatzitakoa Auspoaren 48. alean eta 85. orrian idatzitakoa transkribatutzen dugu.

" La primera se dirige a aquellos que notarán la mezcla que se hace del vascuence y casteliano, pareciéndoles más regular el que todo fuese en uno de los dos idiomas. Digo, pues que mi primera idea fue de que toda esta

ópera fuese en vascuence; pero luego me faltó la dificultad del dialecto de que me había de servir en ella. Si me valía del de Azcoitia, hubiera sido poco grato a todo el resto del País hasta la frontera de Francia, por la preocupación que tienen contra el vacuence o dialecto de Goi-erri; y si quería usar el dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastián, etc. exponía a los actores a hacerse ridículos; pues sería difícil que todos pudiesen imitarle bien. Por esta razón, pues me hube de contentar con reservar el vascuence para lo cantado haciendo que todo lo representado fuese en castellano".

1971. urtean, Jesukristo Jaunaren NEKALDIA antzerki liturjikoak idazten du San Mateoren liburuan oinarrituta.
1973. urtean TRABENAN, idazten du, herri ipui batetan oinarrituaz.
1974. urtean EUSKAL ERRIAREN ETORIKIZUNA komedia ikastoletako gaztetxoentzako idazten du.

IPUIAK:

Hainbat ipui idatzi ditu baina aipagarria da 1967 urtean Gerediaga Elkartek eratutako Kirikiño ipui lehiaketan OHOREZKO AIPAMENA eman zioten EZ DA PUTZA GERO, JAUNA ipuiagatik.

LIBURUAK:

1955. urtean YANETA ensaioa idazten du.
1965. urtean AURITZ ensaioa idazten du baina bi lantxo hauek ez dira argitaratuak izan
1973. urtean ERREKA ZULOAN ETA ... liburua argitaratu zuen.
1975. urtean GARXI-XIMENO ETA ... liburua argitaratu zuen, eta urte berean AMEZKETAKO PERNANDO ensaioak argia ikusi zuen, eta baita 20 IPUI TA IKASTOLETARAKO ANTZERKITXO BAT-ek ere.

ITZULPENAK:

Bi lan itzuli ditu biak ere Donato ARRINDArenak bata BIBLIA IKASKETA 1970 argitaratutakoa eta bestea 1977. urtean argitaratutako JEHOVATARRAK.

BERTSOAK:

Bertso asko idatzi zituen; eleiz girokoak, Santa Ageda bezperako bertsoak prestatu izan ditu, eta zer esanik ez ikastolak sortu berriak zirenean zenbat bertso jarri zituen andereñoak eskatuta ikastoletako gaztetxoak ikasi zitzaten. Bertso mota hauek garaiko fruituak izan ziran denborak galdu zituenak ala eta guztiz ere Olerti aldizkarian ORREAGAri buruzko bertsoak argitaratuak izan ziren.

Anastasio ALBISUREN antzerki lanak liburu hauetan aurkitzen dira.

NI EZ KRISTARRA	ERREKA ZULOAN ETA ...	"KARDABERAZ6"
GABON GAUA	ERREKA ZULOAN ETA ...	"KARDABERAZ6"
OGI TA ARDO EDUARDO	ERREKA ZULOAN ETA ...	"KARDABERAZ6"
ON EGITEN DAGO ZORIONA	ERREKA ZULOAN ETA ...	"KARDABERAZ6"
NEKALDIA	ERREKA ZULOAN ETA ...	"KARDABERAZ6"
TRABENAN	ERREKA ZULOAN ETA ...	"KARDABERAZ6"
GAROA	GARTZI-XIMENO , ETA ...	"KARDABERAZ9"
MESEDERIK AUNDIENA	GARTZI-XIMENO , ETA ...	"KARDABERAZ9"
LOIOLA-XABIER	GARTZI-XIMENO , ETA ...	"KARDABERAZ9"
GARTZI-XIMENO	GARTZI-XIMENO , ETA ...	"KARDABERAZ9"
LEEN BEAR ZUAN...	GARTZI-XIMENO , ETA ...	"KARDABERAZ9"
ON EGITEN DAGO ZORIOAN	EGAN 1-4 1959	
EUSKAL ERRIAREN ETORKIZUNA	EUSKARAZAINTZA XX zb.	
PERNANDO AMEZKETARRA	AZPEITIAKO TOPAKETAKO ARGITALPENA	
TXOMIN ARLOTE	AZPEITIAKO TOPAKETAKO ARGITALPENA.	

AMAIERA:

Hitzaurre honen amaiera ahal den azkarrena izatea nahi dut, irakurleak Anastasio Albisuren lanetan murgilduaz irakurketa bide delarik zenbait orduz gozatzeko.

Anastasiok 16 antzerki idatzi ditu, eta ezagutzen ditudanak 15 dira, "SORTZEZ GARBIA" ahaleginak egin arren ezin aurkitu izan dut, baina ziur nago txokoren batean egongo dela eta egun batez argitara azalduko dela. Ezagutzen ditudan 15 antzerki hauek giro desberdinetan kokatzen ditut. Lituji giroan: Ni ez kristarra, Gabon gaua, Mesederik aundiena, eta Nekaldia. Komedi giroan: Ni ez nezkazar, Ogi ta ardo Eduardo, Fernando Amezketarra, On egitean dago zoriona, Trabenan eta Euskal Erriaren etorkizuna. Bizitza giroan : Loiola-Xabier eta Garxi-Ximeno. Drama giroan: Garoa eta LEHEN BEHAR ZUEN.

Anastasiok antzekia ulertzeko era berezia du. Gure herrian ez dut beste egilerik ezagutzen antzerkiari bere ibilkera berezia ematen dionik. Neretzako Anastasio kontalaria da eta nahiz eta giroa eta egiturak aldatu, kontalariak, sortzen dituen pertsonaiak, antzerkitxo giroa eta egoera sortzen dute.

Txomin Arlote antzerkia irakurri dudanean gogoeta bat egin dut:

"Anastasiok antzerkiak idazten hasi aurretik egoera bat aurkitzen du. Egoera hori aipatutako antzerkiaren haseran ikus daiteke: Amona, kontalaria, ilobaz inguratua eta sukaldean beheko suaren txinpartaren doinuaz lagundua.

On Manuel Lekuonak Fernando Amezketarrari egindako hitzaurrean honela dio:

"Ez noa gaurko saio oni buruz ezer esatera, osagarri bezela lagun dijakion besteari buruz bakarrik esango dizut zerbait. Teatro gaia bezala egin du D. Anastasiok eta "Fernando Amezketarra" ipiñi dio izen. Bañan badakizu, badela teatro-gaia ta teatro-gai mueta bat bait da au ere (Ainbeste dira).Ipuin xorta bezela egin du D. Anastasiok bere antzerki au. Pernandoren ipuiak. Ipui bakoitza bere kontariaren aotan ipini du, kontari bakoitzak bere doñu, bere gatz eman dezaion. Eta ederki. Oso ederki"

On Manuelek hitzaurre honekin Anastasioren antzerki iturria eta egitura literarioa adierazten du. Irakurtzeko egokiak dira eta irakurleak frogatuko du. Bainan bestalde badakit zenbait ikastetxek Anastasioren antzerkiak eta ipuiak Gaztañagaren eskutik antzestuak izan direla eta ziur nago berean jarraituko dutela, hori bait da antzerki zaleon nahia.

Eugenio Arozena

Oiartzunen Azaroaren 13an.

AZKOITIAKO Udal Batzak, mila bederatzirehun eta larogeita bederatziko Ekainaren hogeitabederatzian eginiko bilkuran, beste akordio batzuren artean honako hau hartu zuen:

- Azkoitiar guztien aldeko lan haundiengatik.
- Duela 25-en bat urte, Ikastolako sortzaile izanagatik.
- Anaitasuna Futbol Taldea eta Anaitasuna Mendi Bazkunaren sortzean emandako laguntzagatik.
- Hain urte zailak izan direnetan, euskeraren aldeko hainbat lanengatik.
- Euskerazaintzako partaide izateagatik.
- Karitas-en sortzaile izan eta behartsuei emandako mota guztietako laguntzengatik.
- 46 urtez Azkoitian bizi izanik, paper soil batean agertu ezinezkoak diren, azkoitiarren aldeko lan guztiengatik.

Azkoitiako Udalak, aho batez, ANASTASIO ALBISU Jauna, Azkoitiako Seme izendatzeko erabakia hartzen du.



TXOMIN ARLOTE

Erri-ipui batetik ateratako antzerkitxo

Anastasio Albisu Ayerdi

Nere ustez antzerkitxo au 1.944 edo-ta 1.945 gn. urtean idatziko nuan.

Kristau-Ikasbideko zuzendaria nintzan ni orduan Azkoiti'n, eta San Pelayo egunean egiten genduan gure Kristau-Ikasbideko jaialdi aundia: Mirixa'ko eguna.

Nik ez dakit orain bertako oar guztiak zergatik gazteleraz idatzi nituan.

TXOMIN ARLOTE

Onela idatzi nuan orduan, eta
onela jartzen det orain ere.

Aparece sentado la Abuela, rodeada de sus
nietos tambien sentados en el suelo de ma-
nera que formen un grupo vistoso. Todo ello
en un lado del escenario pero que sea visible
al publico.

Amama.- Gaur ez, enetxoak, gaur ez...! Biar "San Pelayo" eguna
dezute ta goiz jeiki bear zerate-ta.

Billoba batek.- Ez degu logurerik, amama.

Beste batek.- Ipuitxo bat esan, amama, ta pozik oieratuko gera
danok.

Beste batek.- Bai, amama.

Amama.- Bañan zer usten dezute zuek...! Zaartu nintzan ni ...
Urterekin batera joan zan nere memoria ere ... Ez ditut ogei ur-
te ... Naita ere ez naiz gaur ipui batekin oraitzen ... Alperrik ...
Ikusiko dezute zuek ere zaartzea zer dan ... Ez ...! Gaur ez
dezute ipuirik.

Illoba batek.- Bai, amama, Esaiguzu ipuitxo bat...!

Aparece por el fondo una hada que queda
detras de la abuela. La hada esta es como si
fuera invisible a todos los que componen la
escena.

Hada.- Zergatik ez deizu esan bear...! Ba' dituzu oraindik esangabeko
ipui asko... Bai, amama... Zure billobitxu aueri eman egiezu
gaurkoagatik poz ori. Biar "San Pelayo" eguna dute-ta izarrekin
amets egin dezaten gaur beintzat ... Ez bildurtu, amama, nik
akorda eraziko dizut ipui eder bat... Begira zure ezker aldera ...
ez al-dezu ezagutzen...?

Mira la abuela al lado izquierdo y ve que viene
Txomin desperezandose ... Txomin es un
herrero i viste como tal. No dice nada y se
sienta al lado derecho del escenario de ma-
nera que todo el publico pueda verle.

Amama.- Bai, Txomin Arlote...!

Hada.- Orra or ba, ipui polit askoa.

Amama.- Esango dizutet ba ... Biar "San Pelayo" eguna dezute, egin dezagun ba bezperatik pesta ... Jesukristo gure Jaunaren egunetan ba'zan Txomin zeritzan ermentari bat. Alperra. Beste bat ez-bezelakoa. Txomin Arlote esan oi zioten guztiak ... Egun guztian etzanik, ez zuan lan apurrik ere egiten ... Ba'zijoan bein-batean erriz-erri Jesukristo ta San Pedro astotxo batekin ... Ala bearrez, galdu zuan nunbait gure astotxo orrek perra bat eta erren zetorren ... Iritxi ziran noizbatean Txomin Arlote'ren perra-tokira ... baiñan alperrik ...! Ez zegoan Txomin bere iantegian ... Orduan Jesukristo'k diotsa San Pedro'ri: Ua ta ortxe billatuko dek itzalean etzanik ... Joan zan San Pedro ta Jesukristo'k esan bezalaxe arkitu zuan.

Aparece por el lado izquierdo San Pedro que
se dirige a Txomin y le dice

San Pedro.- Jeiki adi, Txomin. Ez dek lotsa aundirik.

Txomin.- Lotsa...? Ja, ja, ja, ...

San Pedro.- Azkar, gizon... Perra baten bearrean diagugure astotxoa eta ... Jesukristo ere ortxe dek ire zai ... ?

Txomin.- Alperrik ... ! Ni ez naiz jeikiko ...! Perra baten bearrean ba'dezute zuen astotxo ori, artu perra ori dagoen lekutik eta ipiñi zaiozute zuek... Laga neri pakean ...

San Pedro.- Ondo zioik ...!

Desaparece San Pedro.

Amama.- Eta joan san Pedro asarrerik Txomin Arlote'ren perra-tokira, ta asi zan perra-tokiko baztar guztiak miatzen ... Eta zoko batean..., nundik ote zituan Txominék perra aiek?, urre gorrizko lau perra eder ... Artu ditu San Pedro'k lau perra aiek eta esarri dizkio bere astotxo-ri ... Bai pozik gelditu zala Jesukristo'ren astotxo ura... !!! Ba'zijoan andik San Pedro, ta "ez, Pedro, esaten dio Jesukristo'k, ori ez zegok ondo. Ordaindu egin bear dizkiagu" ... Ordaindu...? Txomin Arlote orrei ordaindu...? Ez bela...!! Etorri besterik ez zeukan ots egin diotenean ..." Ez dik inportik...! Urre gorrizko perra oiek ez ituan

gureak ... Ator, ba, nerekin..." Eta etorri ziran biak Txomin
Arlote etzanda zegoen tokira ...

Aparecen Jesukristo y San Pedro

San Pedro.- Ta, Txomin, zer zor diagu...?

Txomin.- Laga egiazute pakean... , Ezer ez...!!

San Pedro.- Urre gorrizko lau perra dituk ...

Txomin.- Urre gorrizkoak...? Ja, ja, ja,

Jesukristo.- Bai, Txomin ... urre gorrizkoak... ! Eta bakoitzari berea
emateko agintzen dik nere legeak.

Txomin.- Ondo da, Jauna ... Baiñan ez det dirurik bear ...!!

Jesukristo.- Dirurik bear ez ba'dek, eskatu itzak ik nai ditukan iru
gauza eta ik nai bezelaxe izango dituk.

Txomin.- (Levantandose) Iru gauza ...? Bai, Jauna...! Aspaldikan
nuan iru gauza oien gogoa ...

Jesukristo.- Esaik, ba, lenengoa...?

San Pedro.- (Al oido de Txomin) Eskatu akiok "zerua"

Txomin.- Ez, Pedro...! ... Ara, ba, Jauna...: Ikusten al' du an, nere
etxe aurrean arrizko jarleku bat ... ? An jartzen dana ba, ez
dedilla andik "mogitu" nik agintzen ez diotan artean ... Ona nere
lenego eskaria...

San Pedro se santigua extrañado

Jesukristo.- Ondo zio... Ala izango dek , ba...

Txomin.- Ona-emen orain nere bigarren eskaria.

San Pedro.- Eskatu akiok zerua, Txomin...!

Txomin.- Ez, Pedro....!! Ikusten al' du, Jauna, nere etxe aureko
intxaur arbola ori...? Intxaur-arbola ortara igotzen dana, ez
dedilla ortik jeitxi nik agintzen ez diodan artean...

San Pedro no hace más que santiguarse.

Jesukristo.- Ondo zio... Ala zango dek ori ere...!

San Pedro.- Bañan, Txomin, zoratu egin ai'aiz...? Ez ai'dek zerurik eskatu bear...?

Txomin.- Ez gaurkogatik beintzat...!

Saca de su bolsillo una petaca de guardar
tabaco y dice a Jesukristo.

Eta au det, Jauna, nere irugarren eta azkeneko
eskaria. Petaca onetan sartzen dana ez dedilla
emendik irten nik agintzen ez diotan artean.

Jesukristo.- Ondo zio...! Ala izango dek ori ere ...! Agur, Txomin...!

Txomin.- Agur, Jauna.

San Pedro.- Txoro ori ...! Igarri beak dio egunen batean.

Txomin.- Ja, ja, ja.

Desaparecen Jesukristo y San Pedro.

Amama.- Eta gelditu zan berriz ere bakarrik gure Txomin Arlote. Pozik
zegoan. Eta pozaren-pozez asi zan etsaiari deika ...

Billoba batek.- Etsaiari, amama...? Zertarako nai zuan etsaia...?

Beste illoba.- Ago ixillik, esango dik eta ...

Txomin.- Bai, etsaia agertzea nai nuke orain ...

Amama.- Eta bat-batean agertu zitzaion etsaia.

Aparece el demonio ante Txomin.

Etsaia.- Zer nai uan, Txomin ...?

Txomin.- Irekin trato bat egin nai nikek.!

Etsaia.- Nerekin...? Ik esango dek, ba, zer nai dekan.

Txomin.- Ara ba ... Ogei urterako bizi nai diat. Ogei urte oietan izan
deзадala zer jan eta zer edan naikoa... ta ogei urte oiek

pasatzean pozik joango neok irekin betirako inpernura. Konpome aiz...?

Etsaia.- Bai ... Tratoa egiña ... Agur, Txomin ...

Txomin.- Agur etsaia ...!

Desaparece el demonio lanzando una carcajada satánica. Va también Txomin a su casa.

Amama.- Eta izkutatu ziran biak ...! Bat inpernura ta bere etxera bestea ... Ez zitzaion Txomin'eri ogei urte aietan zer jan eta zer edan faltatu ... Bañan arin zijoazen urteak ... Bost, amar, amabost... emeretzi ... ta bete ziran egun batean ogei urteak ere. Ta an etorri zitzaion zintzo asko Txomin'en billa etsai gaistoa ...

Aparece el demonio

Etsaia.- Txomin ...! Txomin ...!

Txomin.- (Desde dentro) Nor dek or neri deika ... (Apareciendo y viendo al demonio) A ...! I al'itzan ...!

Etsaia.- (Sarcásticamente) Bai, ni nituan ... Igaro dituk ogei urteak ... Tratoa tratoa izan oi dek ... Gaur nerekin inpernura etorri bear dek ba ...

Txomin.- Inpernura...? Bai motik, pozik ala ere. Bañan ago pixkatean, erropa auekin ezin joango neok beintzat ete ... Ni aldatu bitartean joan adi, ta eseri adi arrizko eserleku ortan.

Etsaia.- Azker ibilli gero ...

Txomin.- Bai, gizona ...!

Desaparecen los dos y en seguida se oye una fantástica carcajada de Txomin.

Amama.- Eta etsaia "tonto-tonto" eseri zan Txomin'en etxe-aurreko jarlekuan. Aspertu zan noizbait. Jeiki nai du eta ezin...! Orduan Txomin'ek, bere aurrera joan eta algaraz esaten dio: alperrik abil, ez aiz ortik mogituko nik agintzen ez diaten artean. Or-

txen usteldu beako dek, leen bezelako beste ogei urte agintzen ez ba dizkiak ... Beste ogei urte...? Bueno, ondoziok bañan ez niok berriz tontotzat artuko ... Eta aserre bizian an joan zan etsaia berriz ere inpernura.

Pasa desesperado el demonio por la escena.

Pasatu ziran ordean beste ogei urteak ere, ta an agertu zan berriz ere etsaia ... Etzan oraingoan bakarrik etorri ... Beste bi etsai zekartzen lagun ...

Aparecen los tres demonios

Etsaia.- Kontu mutillak...! Ikusten dezute an, etxe-aurreko arrizko eserlekua... ? Ez ba iñor an jarri ... Ezin jeikiko zerate bestela eta ... Eta orain asi Txomin'eri deika ...! (Todos a una) Txomin, Txomin, Txomin...!!!

Txomin.- (Apareciendo) Zer dezute orrenbeste bullarekin...?

Etsaia.- Alperrik abil ... Oraingo ontan ez dek iges egingo ... Azkar gurekin inpernura...!

Txomin.- Bai, gizona, bai ...! Aspertuta niok emengo bizitzarekin ... Ez zerate bela etorri ... Bañan ez nitek esku-utsik joan nai ... Zueri ez zaizute asko kostatuko ta bildu tzatzute momentu batean intxaur- arbola ortako intxaurrekin ... Biderako ondo etorriko zaizkiguk eta inpernurako ere bai ...

Etsaia.- Egia diok ... Bildu ditzagun ba momentu batean.

Desaparecen y se vuelve a oír la carcajada de Txomin.

Amama.- Igo ba'ziran, igo ziran bai ... Bai askar intxaurrekin bildu ere ... bañan ezin jeitis adarretan pegaturik gelditu bai ziran. Orduan Txomin'ek, leen bezela algarabatean "alperrik zabiltzate esaten die, ez zarate ortik jeitxiko nik agintzen ez ba'dizutet. Beste ogei urte igualak eman bear dizkiazute, ortik jeitxiko ba'zerate ... Eta etsaiak beste erremediorik ez ... ! Eta agindu egin zizkieten beste ogei urte ere ... Lotsaz, an joan ziran irurak inpernura Txomin munduan laga-ta.

Cruzan la escena los tres demonios.

Azkar igarotzen ziran Txomin'entzat ogei urte aiek. Jan, edan eta lo egin ... Ez zuan beste ezer egiten. Akordatzeke etortzen zitzaion eguna ... Oraingo ontan ez zitzaizkion iru etsai bakarrik etorri ... Askok ziran ... ezin kontatu aña ... ! Inpernuko etsai guztiak an agertu ziran bazter guztietatik Txomin'en etxe inguruan.

Pasan demonios por todas las esquinas.

Ala ere ez zan asko ikaratu gure Txomin Arlote... Asi zan guztiakin berriketan . "Ez al'dezue jarri nai ... esaten zien batzueri ... " Ez al'dezute intxaurrik bildu bear "beste batzueri ... Zenbait algara egin zituan Txomin'ek etsai guzti aien artean ... Ez ote zion, ba, inpernuan bildurrik ematen ...? Alako batean atera du bere tabako-petaka ura ... " !, Lizifer ... ! Askotan entzun izan diat etsaiak oso abillak zeratela, bañan ez diat sinesten.... ! Egia al'dek, zueknai izan ezkeror, nere petaka onetan danok sartuko ziñatela...? ... Ez duk ba izango... ! Ez diat ba sinisten... ! Ez al'dezute prueba bat egin nai ...? ... Prueba bat ...? Engañatu egin nai al'gaituk berriz ere ...? ... Ez motel ... Benenetan...? Laister ikusiko dituk, ba, gure abilitadeak... ! Eta asi ziran danak bana-banaka Txomin'en petaka barrenean sartzen ... Ura Txomin'en poza ... ! Etsai guztiak petaka barrenean sartu ziranean, itxi zuan bere petaka, joan zan lantegira, ipiñi zuan petaka burni aundi baten gañean, artu zuan mallukerik aun-diena, eta, dan, dan, ... dan ! etsai guztiak garraxika... ! eta ori egun batean eta bestean ... Inpernu bertan ere ez zuten etsai aiek orrelako beroturik artzen. ... Eta munduan, etsai guztiak preso bai-zeuzkan Txomin'ek, pakean bizi ziran gizon guztiak.

Billoba batek.- Eta ortan akabatzen al'da ipui au, amama...?

Amama.- Ez, enetxo... ! Erri artan errege gaizto bat bizi zan. Etsaien laguna... Errege onek jakin zuan bein, Txomin'ek etsai guztiak

preso zeuzkala ta bialdu zuan bere mandataria Txomin´entzako agindu batekin.

Pasa el paje con un envoltorio en la mano.

Txomingizajoak ez zuan beste erremediorik izan...! Etsaiak askatu bear izan zituan ... Bañan ez jipoi galan-ta lenago eman gabe ... Pozik ziran etsaiak egun artan auts biurtu ez zituanean ... ! Beren buruak aske ikusi zituztenean, ez zuan iñork Txomin´ekin zerikusi nai. Laisterka batean ezkutatu ziran danak inpernuan.

Los demonios cruzan presurosos y en todos los sentidos la escena.

Zaartu zan Txomin ere, ta il ere bai egun batean ... Eta il-kutxa ipiñi zioten kororia besapean artu, ta artu zuan zerurako bidea . Jo du "kox-kox" zeruko atea ta agertu da San Pedro. Nor da emen zeruko atean...? ... Ni, Txomin ... Zein Txomin. Nor izango neok ba. Txomin Arlote ermentaria ...! Txomin arlote? Ez aiz ba zerurako asmoetan etorriko ...! Ez al ´aiz oroitzen ... Esan nik, egun artan, zerua eskatzeko eta ez uan eskatu ...ua ba orain betirako inpernura ... Eta Txomin´ek bere koroia besapean hartu zuan inpernurako bidea ... Bañan etsaiak Txomin Arlote zala ikusi zutenean, arek emandako jipoarekin akordatu sobra ere, ta danak asi ziran ateari bultzaka ura inpernuan sartu ez zedin ...! ... Eta ez zeruan eta ez inpernuan artu ez zutelako, berriro ere mundura etorri bear izan zuan gure Txomin Arlo-te´k ... Eta ez al ´dezute iñoiz entzun aizeak ateratzen duan txistu bizi ...? Txistu ura Txomin Arlote´k ateratzen du batetik-bestera ibiltzen da-nean ... Eta egia ba´da, sartu bedi zuen kalabaze-tan ...

Hada.- Ikusten , amama...! Oraindik zure buruan onelako ipui asko daude. Emen izango nazu berriz ere, zure billobatxo aueri ipuitxo bat edestu nai diezunean ... Agur, amama ...!

Desaparece la Hada.

Billoba batek.- Bai polita zala, amama.


Amama.- Bai. Ondo dago...! Ea orain errosario santua nola errezatzen dezute. Gurutze Santuaren ... Jesukristo nere Jaun ...

Los nietos se recuestan uno sobre otro y comienzan a dormir.

Ori gertatzen da ba emen ... Ipui denboran danok ernai ta errezatu bear danean danok logure.

Anastasio Albisu Ayerdi.





KARDABERAZ

Erreka zuloan eta...

Albisu ta Ayerdi-tar Anastasio

ZALDUN GAZTEA ETA AMAIA !!

Anastasio Albisu Ayerdi

1.955 - Ilbelta'k 28

ZALDUN GAZTEA ETA AMAIA!!

(Ipuia)

Antziñako egun aietan ba'zan Euskal-erri'ko mendirik gallurrenean arri-landuz egindako gaztelu zaar aundi bat. Ate ta leioak burni-olaz itxiak zeuzkan... Ez zan gazteluan iñor bizi aspaldiko urteetan ...

Egun batean ibilaldi bat egiteko asmoetan, irten zan mendiruntz, an-inguruetako zaldun gazte bat ...

Amabi-amabietan gaztelu-zaarreko ate-aurrean zegoan. Gaztelu-barrutik irtetzen zan abots-bildurgarri bat entzun zuan bat-batean.

"Nor-nai zerala, iriki egidazu atea" zion abots bildurgarri arrek ...

Bildurtu zan zaldun gaztea ...! Mendi-bera egiteko asmoak artu ere bai ... bañan ... zaldun gazte batek iñoren bildur ez duala izan bear-eta ateruntz joan eta indarka irauli zuan gaztelu zaareko burnizko atea.

Azti bat irten zan gaztelutik ...

-. Eskerrak, gazte ... ! Almen aundiko azti bat nazu. Zure morroi izango nazu gaurtik-aurrera, gazte ...! Bearren-batean arkitzen zeranean, dei egin zaidazu, ta an izango nazu zure alboan ... Ba'ditut iru alaba. Eguzkia bezein ederrak irurak ...! Mendi-egal batean detan jauregi eder batean bizi dira irurak ... Aztia naiz ni ...! Ta aztia naizelako, ezin bizi naiz nere alabekin batera ... Ez ote zenduke zuk, aiekin bizi nai ...? Nere ordeko izango ziñake ... Zuk zainduko zizkidazuke nere iru alaba oiek ...

Ez zitzaion gaizki iruditu zaldun gazteari aztiaren jardun au ta "baiezkoa" eman zion.

Artu zuan, orduan, aztiak bizkarrean zaldun gaztea, ta mendi-egalean zeukan bere jauregira eraman zuan egaka ...!

-. Ona-emen, esan zien aztiak bere alaberi, ona-emen ni kanpoan naizenean, zuen ardura izango duan zaldun gaztea. Ondo artu ezazute. Bera izan dedilla nere jauregiko nagusia, bera izan da ta gaztelu zaarretik atera nauen gazte bulartsua...!

Ondo bete zuten iru alaba gazte aiek bere aitaren esana. Etxeko nagusi bezela artu zuten zaldun gaztea ta beretzako izan ziran etxeko jaki ta baztarrik ederrenak.

Laister igarri zion zaldun gazteak, etxe artan zer-edozer arrigarria gertatzen zala gauero-gauero. Gaueko amabi-amabietan jaikitzen ziran egunero iru neskatzak ... Zer dala-ta jeikitzen ote ziran...?

Jeiki zan gau batean zaldun gaztea ere. Jarri zan zelatan eta iru neskatzak, oso bihurturik, leiotik iges egiten zutela ikusi zuan. Urreratu zan bera ere leio artara, bañan bat-batean txori biurtu zan bera ere... Ekin zion orduan uso atzetik egaka ta laister zan bera ere, gaua izanarren, argi bizitan zegoan mendi-tontor bateko zelai eder batean.

Zelai erdian urrezko jarleku bat zegoan. Eta jarleku inguruan millaka ta millaka uso zuriak...!

Susko-gurdi batean laister agertu zan zelaian Amaia, Aitor zaarraren alaba bakar eder-ederra. Zelai erdiko urrezko jarlekuan jarri zan bezin-laister, asi ziran millaka usoak Amaia-ren inguruan jira-biraka. Uso aietako uso bakoitzarentzat zeukan Amaia'k irripar gozo berezi bat ...

Gaua azkendu zanean jarri zan Amaia bere susko-gurdian eta ekin zioten guztiak, bakoitzak bere etxeruntz ...

Amaia'ren edertasunarekin lilluratuta gelditu zan txori biurtutako zaldun gaztea... Ta susko gurdiaren atzetik ekin zion egaka...

Amaia etxeratu zanean, laister zan txori-biurtutako zaldun gaztea ere Amaia'ren etxean.... Artu zuan Amaia'k eskuetan eta bere gelako leioan zeukan urrezko kaiola batean ipiñi zuan ...

Oeratzeko asmoetan zegoanean ...

.- Amaia, esan zion abots batek emeki. Beltz guztiak ez dira ikatzak izaten, txori guztiak ere ez dira txori izaten. Ardura aundi bat izan bear dezu, ba Amaia ...

Abots arrek zer esan nai zion errez ulertu zuan, Amaia'k. Ateratu zuan txoria urrezko kaiolatik eta ...

-. nor zera zu...? galdetu zion txoriari Amaia'k. Amaia'ren galdera onekin biurtu zan bere izatera zaldun gaztea, ta onela erantzun zion Amaia'ri ...

- . Zurekin txoratu naizen zaidun gazte bat naiz ... Amaia zerala ba'dakit, Aitor'en alaba. Zurekin ezkondu nai nuke, Amaia... Ez det ezkonsaririk, bañan euskaldun odola daramat nere zañetan. Ta nere eskabidea egiteko ausardia odol onek ematen dit...
- . Ondo dago, gazte, erantzun zion Amaia'k. Euskaldun izateak ematen dizu, bai, nere eskabide egiteko eskubidea.... Baña nere senar izan bear duanak bere ausardia agertu bear du ... Ba'da Euskal-erri'ko mendietan, euskaldun artean kalterik asko egiten duan eraintsuge bat ... Eraintsuge ori il bear dezu, ta iru egun barruan aren burua ekarri bear diazu, nere senar izan nai ba'dezu. Agur, ba, zaldun gazte ...!

Ezpata eskuratu ta eraintsugearen billa irten zan zaldun gaztea. Amaia'ren etxetik. Ez zuan jan-edateko astirik artzen ... Mendi batetik-bestera ibilli zan egun guztian. Alperrikakoak izan ziran, ordea, egun artako bere ibillialdiak ... Ez zan iñun, Amaia'k esan zion eraintsuge arren arrastorik agertzen.

Bigarren egunean ez zuan leenego egunean baño zorion oberik izan... Alperrik ibilliko zala onuzkero ta zugaitzpe batean eseri zan ilunabarra etorri zanean... Negar egin zaldun gazteak ... Bere zoritxarra ikusi ta malko samiañak iraultzen zituan gaixoak ...

- . Ai, gaztelu zarrako azti madarikatu ...! deadar egin zuan. Ona ni emen, bateren-baten laguntasunaren bear ... Nun'aiz i, azti madarikatu ori...!
 - . Eme zure ondoan, zaldun gazte ... erantzun zion bereala agertu zitzaion aztiak... Zer nai zenduke...?
 - . Euskaldunen artean kalterik asko egiten duan eraintsugea nun bizi dan jakin egin nai nuke: eraintsuge ori il egin nai nuke ta eraintsuge orren buruarekin Amaia'ren etxera joan nahi nuke biarko eguna azkendu baño leen ...!
 - . Ondo dago ... Nere bizkarrean jarri zaite...
- Jarri zan zaldun gaztea aztiaren bizkarrean eta egaka ekin zion aztiak. Goizaldera, eguzki epeletan lo ikusi zuten eraintsugea mendi gallur batean...
- . Eman zaidazu ezpata ori, esan zion aztiak zaldun gazteri.

Ta ezpata eskuan, tximista bezin arin, jetxi zan aztia eraintsugearen gañera ta bat-batean esku-muturreraño sartu zion biotz-biotzean ezpata ... Odol-ustu zan eraintsugea!... Nekez, ba'da ere, moztu zioten burua. Ta eraintsugearen burua esku batean, ta zaldun gaztea bizkarrean, ekin zion berriro aztiak Amaia'ren etxeruntz ...

Illunabarrazan Amaia'ren etxeko atera iritxi ziranean ... Eskerrak eman zizkion zaldun gazteak aztiari ta illunean galdu zan aztia ... Jo zuan zaldun gazteak Amaia'ren etxeko atea, ta Amia atarian agertu zanean ...

- . Ona emen, esan zion zaldun gazteak Amaia'ri ... Ona-emen, Amaia, euskaldunen artean kalterik asko egiten zuan eraintsugaren burua ... Irugarren eguna degu oraindik gaur ... Itz batekoa izango zera, Amaia ... Nik izan bear det, ba, zure senarra ...!


Uso txuriekin, amabi-amabietan izaten zituan batzarretara, beste gauetan susko-gurdian bakar-bakarrik joaten ba'zan Amaia, gau artan zaldun gaztea eraman zuan berarekin susko-gurdian Amaia'k...

Beste gauetan ez bezelako jaia izan zuten uso-txuriak, Amaia'ren eztaietako gau artan ...!!!

Anastasio Albisu Ayerdi

1.955 - Ilbeltzaren 28'an





PRAKAX....! Gertaera Parregarria ...!

Anastasio Albisu Ayerdi

1.961. Azaroa´ren 15´ean

PRAKAX ...

Gertaera parregarria ...!

- . Donosti'ra joan nai dekela ...?
- . Ez diat, ba, naiko ...! Sekulan ez neok an izan eta ...
- . Tori ogeitamar duro. Amar durokin egingo dek joan-etorria. Ta beste ogei duro oiek ez zaizkik gaizki etorriko basoerdi batzuek edan eta zerbait jateko ... Oraintxen daukak tren bat. Gauean, ordea, emen ikusi nai aut. Donosti'ri zer iritzi diokan jakin nai diat eta ...

Eta laisterketa batean joan zan Prakax geltokira.

- . Donosti'rako bat ...!
- . Donosti'ra al 'oa , Prakax ...?
- . Bai ... Nere andradia izan nai duan batek, aruntz joateko gaztigatu ziak, eta aruntz nijok ... Zer, ba ... ? Ez al 'neok ni beste edozein bezein mutil itxurakoa...!
- . Bai, Prakak, Bai ... Ta nun ikusi bear dek, ba, ire andragai ori ...?
- . Donosti'n ...!
- . Donosti ez dek, gero, au ...
- . Ezta ni ere ura ... Ekarri iak txartel ori , ta ar zak dirua. Gaur ez dek iñor ni baño aberatsagorik munduan ... Aupa ...!!

Emakume gizen baten ondoan portunatu zan
Prakax trenean ...

- . Donosti'ra al 'zuaz... ?
- . Arutza noa, bai ...
- . Ni sekulan ez naiz izan eta ...
- . Gezurra dirudi ... ! Ta ez dezu galtzeko bildurrik ...?
- . Ez tabernarik ba'dago beintzat ...!
- . Tabernea obe dago Donosti'n, beste gauza asko baño ...
- . Au poza ... ! Nik daukat gaur, nik eguna! Aupa...!!

Iritxi zan noizbait gure Prakax Donosti'ra.
Irtzen zan geltokitik, eta jendea noruntz, aruntz
Prakax ere.

Pixe-gureak eldu zion bat-batean, eta etxe-
orma betera arrimatu ta txixe egiten asi zan

ordurako, etorri zitzaion polizi bat eta onela
esan zion:

- . Adiskide ...! Emen ez dago txis-egiterik...!
- . E ...?
- . Donostiá'n zaude eta ez zure basarriko ikulluan ...
- . Ni ez naiz basarritarra ...!
- . Eta ixilik ez ba'zaude, bost duro kenduko dizkizut gaiñera ...
- . Eta nik eman ... !
- . Zaude ixilik, eta joan zaiz emendik beste leku batera ...
 - Ixildu zan Prakax, bañan ez aren txixe-gurea.
 - Gero eta larriago zegoan, bañan kale-ertze guztietan agertzen zan poliziaren bat eta Prakax'ek ez zeukan txixe-gureari eutsi beste erremediorik ...
 - Iritxi zan noizbait Bulebard-ertzera, ta ara nun ikusten duan txakur bat, ankea jasota, arbola baten kontra txixe-egiten ...
- . Au dek nerea, esan zuan berekiko Prakax'ek
 - Eta arbola artara arrimatu ta asi zan gure Prakax ere...
 - Bañan asi ba'zan, asi zan. Laister moztu bear izan zuan txixe-erreka ...
- . Adiske ... Bost dura multa, esan zion bizkarretik elduta, polizi batek ...
- . Zergatik, ordea...?
- . Emen ez dagolako txixe-egiterik ...!
- . Egin al 'det, ba ...
- . Eta nork busti du, ba, arbola ori ...
- . Txakur batek ...!
- . Ez zaude, zu, txakur txarra ... Eman zaizkidazu bereala bost duro oiek, kartzelara joan nai ez ba'dezu zuzen-zuzen.
- . Onelako gauzak Donosti'n bakarrik ikusten dira. Txakurrak libre nun-nai txixe-egitea, eta gizonezkoak ez ... Ez nazu berriz Donosti'n arrapatuko ...

Eta bost durukoa eman eta an gelditu zan
Prakax Bulebard'eko aulki batean ...

Gero ta larriagoa zegoen gizajoa ...

Ez zekian zer egin ... ! Negarrez asteko ere
ez zan ume bat, eta garrasika asten ba'zan
laister izango zuan beste multa bat ...!

Sugea bezelaxe biurritzen zan aulkian. Aundia
zan, izan ere, aren egon-eziña...!

Askot ziran bere ondotik igarotzen ziranak,
bañan iñork ez zion kasorik egiten ...

Ontan aberats-antzeko emakume bat urreratu
zitzaion ...

- . Zer dezu, gizon ...?
- . Zer dedan...? Txixi egin nai , ta txixerik ezin egin ...!!
- . Ez da ona orixe...!
- . Probatzeke ez daki iñork au zer dan ...!
- . Sinisten dizut, bai, ... Atoz nerekin gizajo ori. Nik eramango zaitut
txixi-egingo dezun leku batera.
- . Eraman nazu, bai, mesedez...!

Eta Bulebard-ertzeko etxe aietako batera
eramau zuan. Igo ziran leenego bizi-tokira, ta
jo zuan txintzarria gure emakume onek...

Zuriz jantzitako neskatxa bat agertu zan
atean ... Jardun zuten emakume biak erderaz,
eta aurrera sartzeko kiñua egin zion neskatxak
Prakax'eri ...

- . Zaude emen pixka batean, esan zion neskatxak .

Eta aulki bigun batean utzi zuan Prakax ...

Berala agertu zan zuriz jantzitako gizonezko
bat ...

- . Atoz nerekin ...!

Eta bein bere lan-gelan...

- . Zer gertatzen zaizu, ba, galdetu zion Prakax'eri
- . Zer gertatuko zait, ba ... Munduan beste iñori gertatzen ez zaiona:
txixi egin nai ta txixerik ezi egin ...
- . Ikusi dezagun, ba, zer dan ori ...

Eta oriñal bat ipiñi zion aurrean ...

Oriñala ikusi zuanean, askatu zituan
Prakax'ek preketako botoiak, eta ... ertz-
ertzeraño bete zuan. Ark artu zuan, ark,
lasaitasuana ...

Sendagileak ez zekian zer esan ...

- . Ez al' dedazu, ba, txiserik egin ezin zendula, esan ...?
- . Bai, jauna, ala esan diot, ete egia esan diot gañera ...
- . Nola liteke ortaz au ...?
- . Nola ...? Errez asko ...! Bi aldiz ere intentatu det nik txixe egitea,
bañan poliziak galerazi didate ... Donostia'n ez dagoala txixerik
egiterik eta ...
- . Ori zan beraz dana...?
- . Bai, jauna, orixe zan ...!
- . Amabost duro zor dizkidazu ...?
- . E ...?
- . Bai ...! Inyezio bat emateko usteetan negon. Eta ura eman
ba'nizun, ogei duro izango ziran. Amabostekin egon leikezu,
ba, konforme...

Eta ara gure Prakax xentimorik-gabe
Donosti'ko kaleetan. Petrikan oraíndik
zeuzkan bost durok, errira ituzltzeko bear
zituan.

- . Ago ixilik, motel ... ! Alde ederrean bizi gaituk emen ... Ez bazkaldu
diat eta ez txikito bat edan ere ... Ogei duro ordaindu bear izan
zituan txixe egiteagatik ...
- . Zer ba...? Urrezko oriñalean egin al 'dek , ba ...
- . Urrezkoan ...?

Eta kontau zizkion Donostia'n gertatuak.

- . Ori egin uan, ba ...
- . Zer egin bear nian, ba ...?
- . Olakotan edozein etxetara joaten dek bat. Donosti'ko etxe guztietan
daukak komun eder bat. Txintxarria jo besterik ez daukak...
- . Bai ...! Eta sendagille baten etxea portunatzen baldin ba'zaidak,
amabost duro ordaindu ta ... kalera...!

- . Ars, Prakax... ! Emango dizkiat beste ogeitabost duro, ta joan adi berriro Donsoti´ra goizeko leenengo trenean.
- . Eta txixe-gurea eltzen ba ´zaidak...?
- . Leengego etxean sartu adi, ta jo zak txintxarria ...!
- . Bai ...?
- . Bai, motel, bai ...!

Eta goizeko seiterdietarako an zegoen
geltokian Prakax...

- . Donosti´rako bat ...
- . Ez al uan atzo andragairik ikusi ...?
- . Bai, ikusi nian ... Bañan beste baten billa nijok gaur ...! Galestitxoia uan atzoko ura ... Amabost duro kendu zizkian emen utsean egiten degun gauza bategatik ...!
- . Ez dek egia izango ...?
- . Bai, motel. bai ...! Aiek die negozioa, aiek ...! Amak billatzen au kalean, alabarengana eramaten au, ta anaiak amabost duro kentzen dizkik ... Neretzat ez dek orrelako andragairik egiten ... Suerte ohea izango al ´diat gaurko onetan...!

Eta Donosti´ra iristerako asi zitzaion
Prakax´eri txixe-gurea. Geltokitik irten
zanerako larri zegoan gizajoa ... Goizeko
zortzirak ez ziran artean ...

Jo zuan zuzen-zuzen etxe batera. Astindu
zuan txintxarria, ta gelditu zan ate-aurrean
zai ... Laister iriki zan atean zirriztu bat. Eta
pitxar bat atera zuan zirriztu artatik, oraindik
jazteke zegoan emakume baten besoak. Egin
zion Prakax´ek egitekoa pitxarrean, eta !
arrigarria! zillarrezko duro bat eman zion ate-
atzean izkutatura zegoan emakumeak .

- . Au dek au, suertia, zion berekiko Prakax´ek ... Onelakoa bear nitek nik nere andragaia ... Aupa ...!

Eta an izkutatu zan gure Prakax Donosti-
zaarreko kaleetan ...!

Alai itzuli zan errira. Ba´zeukan zer esana
ugari.

- . Ta...?
- . Oso ederki ...!
- . Eta ez al ´dek txixe-gurerik izan ...?
- . Ez nik nai añekotan ... ! Bein-bakarrik, zoritxarrez ...!
- Eta zeaztasun guztiekin kontatu zion
Prakax´ek etxe artan gertatua ...
- . Ik egiteko ez dek, ori ere, aundia ...!
- . Zer, ba ...?
- . Ara, Prakax,... Etxe artakoak ez ituan artean jeiki, ik txintzarria astindu dukanean. Esne-bezeroa itzalakoan atera die esneontzia... Jasteko astirik eman ez diekelako, ez die aterik iriki. Ta pitxarrean artu dutena esnea zalakotan eman die duroa ...
- . E ...?
- . Bai, Prakax, bai ... Eta eskerrak bereala konturatu ez diranik, gaurko gaua kartzelan pasatu bearko uan bestela... Ez daukak Donosti´ra bakarrik joaterik, Prakax ...
- . Ez, e ...?Ba oraindik amalau duro zor zizkiate donostiarrak. Eta ordaindu bearko zizkie ...! Ez dezadala nik emen donostiar bat txixe-egiten ikusi ... bost duro multa...!!

Anastasio Albisu Ayerdi

1.961. - Azaroa-ren 15´ean.



EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

XX Zenbakia.

1992

Uztaila-Iraila

AURKIBIDEA

Orr.

Gaztedari ongi etorri.- B. Madina (Barruko azalean).	
IX Mendean 872'ko lau farruki.- Latlegi'iar Bixente	1
Euzkeraren arerloak.- Ufesterazu'tar Andoni	11
Periko Fortunaren Astapenak.- Arrinda'tar Anes	14
Illetak joaz.- Aita Onaindia	33
Euskal-Erriaren etorkizuna.- Albisu'tar Anastasio	36
Bere eta Aren arazoa.- Arrinda'tar Anes	46
Ondarroako abizenak.- Zubikarai'tar Augustin	50
Aita Villasante'ren aolkusk.- Kortajarena'tar Andoni	57
"Elbire Andereño" sariketak	59
Mungialdeko esaerak.- Legarreta'tar Asier	61
Gure folklorea.- "Txori-Erreka"	63
Erri esaerak.- Esaeradun liburutatik (Barruko azalean)	
Esaldi jatorrak.- Oñatibia'tar Manu (Kanpo azalean)	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

YANETA

Anastasio Albisu Ayerdi

1.964 - Epeilla.

Yaneta´ren lan-mai gañean irakurgai bat aurkitu zuan goiz artan Gaxuxa´k.

Tentagarria zan eleberriaren izena NAGUSIA TA NI...! Ta tentagarria eleberriaren azala ere. Ez zaar eta ez gazte, ez zan aberats antzeko gizon bat agertzen zan bertan neskaxa gazte eder baten ondoan ...

Irakurgai berak zionez, neskaxa gazte eder ark idatzi zuan irakurgai ura ...

Ikusi zuan ordurako eskutatu zuan Gaxuxa´k liburu ura. Ta orrelakoetan ori zuanez, toki artako garbitasuna egiteko eskuan zauzkan tresnak alde batera utzi, ta liburuaren azkenengo orrialdea irakurtzeari ekin zion ...

Ez zegoan egun artan Gaxuxa gauza tristerik irakurtzeko.

Susmo txar bat sortu zitzaion barrenean, oetik jeiki zan bezain laister, eta egiñeko alegin guztiak alperrikakoak izan ziran Gaxuxa´rentzat: ezin uxatu zuen, susmo txar orrek barruan jaio-erazi zion illuntasuna

Yaneta lantegiko idazkaritzan agertu zanean, bertako autsak biltzen ari zan artean Gaxuxa ...

- . Egun on, Gaxuxa. agurtu zuan Yaneta´k
- . Baita zuri ere, Yaneta ...
- . Berandu zabiltz gaur ...?
- . Bai...! Zure mai gañean arkitu dedan irakurgai orrek dauka erru guztia ...
- . Nere mai gañean irakurgai bat ...? Nork ipini ote du, ba ...
- . Nik ez dakit, Yaneta ...! Ni onera etortzean ortxen zan ori. Azala ederra du, izena ere ai, baiñan bukaera ez ...! Neri ez zaizkit atsegin bukaera txarreko irakurgaiak, ta ezin orrena baiño txarragorik izan ...! Tristeagorik esan nai nuke ...! Leen triste dagoanari, ez dio irakurgai orrek alaitasuna aundirik emango ... Ta ni gaur tristea nago, Yaneta, oso tristea ... !

Zorigaitzen bat gañean degula esango nuke ...

- . Zorigaitzen bat ...?
- . Bai, Yaneta, bai ... Ta ez zinduzket bildurtu nai, baiñan zorigaitz ori, ementxen biltzen geranen-gaiñ ikusten det ...!
- . Gure gaiñ, Gaxuxa ...?

- . Gure gaiñ, bai ...! Oneia pentsatzeko arrazoirik ez dedala, ondo dakit nik, Yaneta, baiñan ezin kendu det burutik bere susmo txar hau ...!
- . Sorginkeriak dituzu oiek, Gaxuxa... sorginkeriak!! Eta sorginkerietan sinistea pekatu dala , ondo dakizu zuk ... Ez zaiozu, ba, zure susmo txar orrei kasorik egin ... Biarko eguna ere argituko du Jaungoikoa´k , eta gaur ez bezala, alai jeikiko zera biar, Gaxuxa...
- . Ala nai dakiola Jaungoikoa´k ...

Gaxuxa joan eta bakarrik gelditu zanean Yaneta, ez zan , bestetan oi bezala, lanean asi bereala ...

Gaztea zan Yaneta ... Oso gaztea ...! Emeretzi urte bete berria zan, eta emeretzi urteko neskatxa artean, ez dago neskatxa zatarrik. Bere edertasunak, eta lantegi artako idazkaritzan zeukan ogi-bideak, ederra egiten zioten bizitza. Ez zeukan, ba, zorigaitzean zergatik pensatu ...? Eta ala ere, bildur-antzeko zerbait sortu zioten Gaxuxa´ren itzak ...!

Urrutzizkiñaren txintzarriak esnatu zuan lozorro-antzeko bate-tik ... On Permin zan deika. Uri artako eliza bateko apaiz nagusia . On Mikol´en laguna ...

Eizarako -edo zerbaiten bear izaten zanean, On Mikol´engana jo oi zuan beti On Permin´ek.

Elizkoia zan On Mikol, lantegiko nagusia. Elizako alkartasun guztietan zeukan beintzat emanabere izena. Ta ez zan iñoiz lantegira, mezatxo bat entzun gabe etortzen...

On Parmin´en dei onek ez zion, ba, Yaneta´ri kendu Gaxuxa´ren itzak sortu-erazi zioten illuntasuna ... Ain zegoan oitua On Permin´en dei auetara ...!

Nagusiak izenpetu bearreko agiri batzuekin, Zuzendaritzan agertu zanean Petri, galdera au egin zion, bat-batean, Yaneta´k...

- . Pekatu al ´da, Petri, sorginkerietan sinistea ...?
- . Bai, Yaneta,...! Pekatua da ...
- . Eta sorginkeria al ´da, baten etorkizuna asmatu nai izatea.?
- . Bai, Yaneta ...! Sorginkeria da ori ... Etorkizunaren berri ez du Jaungoikoa´k baizik eta ...

- . Eskerrikasko...! Zuk ez dakizu, Petri, nolako lasaitasuna eman didaten zure itz oiek ... Tristeia baiño tristeagoa aurkitu det gaur goizean Gaxuxa... Susmo txar batekin jeiki dala oetik esan dit ... Eta bere uste, okerren bat gertatu bear zaiola, eman, leku ontantxe biltzen geraneko baten-bateri ...
- . Zer ...?
- . Entzun dezuna, Petri... Ta ikusten dedanez, ez zaizu zuri ere, batere atsegin Gaxuxa-ren iragarkia ...
- . Ez, Yaneta ... Ez zait batere atsegin ... Sorginkeriak, sorginkeri izango dira baiñan arrisketatik iges egiteko agintzen digu Jaungoikoa'k, ta ba'noa ni emendik, ba 'da ez ba'da ere ... Emen uzten dizkizut On Mikol'ek izenpetu bear dituan agiri auek ...

Yaneta'ri ez zion kemen audirik eman Petri-ren irtera onek ... Leen kezkatan baldin ba'zegoan, kezkatuago zegoan orain. Ez zuan ark uste, gjozn-egin batek ertera ori egin bear zionik ... On Mikol'en aurretik agertuko ba'litiz On Permin ...? Apaizak dira, izan ere, sorginkerietan gutxiena sinisten duten gizonak ...!

Baiñan ez ...! Ez zan On Permin, On Mikol'en aurtik etorriko ... Eta nork aitatu onelako gauza bat On Mikol'en aurrean ...?

Ez zan luzea izan On Permin'ek eta On Mikol'en arteko jarduna. Iritxi nai zuan ura, iritxi zuan bezain laister, irten zan On Permin On Mikol'en lan-gela artatik ...

Iñoiz ez bezala itz egin zion goiz artan On Mikol'ek Yaneta 'ri ...

- . Gertatu al'dizkidazu, Yaneta, atzo esandako agiriak ...?
- . Bai, jauna... ! Zorro ontantxe dituzu danak.
- . Ondo dago, Yaneta ... Lotsa ere ematen dit, egin bear dizudan galdera au egiteak ... Baiñan zenbait illabete diran, jakin nai nuke, nerekin lan egiten dezula ...?
- . Atzo bete ziran sei illabete, jauna ...!
- . Urte erdia ...! Zurekin gustora nagoanik, ezin esango dizut. Ondo bait-dakizu zuk ori. Langillea ta leiala zera, ta zergatik esan ez ...? neskaxa polita gaiñera ... Atzo mai-gaiñean utzi nizun irakurgai ori, nere eskuetara etorri zanean, orduantxe konturatu nintzan, eskergaiztokoa izan nintzala zurekin. Ez bait'nizun sekula erregalatxo bat egin ... Orregatik gaur, eta esku-utsik ez agertzearren, goxotegi batean izan naiz, eta erregelotxo au

erosi det zureztat ... Ez da gauza aundirik, Yaneta. Goxo batzuek besterik ez dira, baiñan au izan dedilla nere ongi-naiaren leenengo agerpema ...

Eta Yaneta-ren eskuetan bonboi-kaja eder bat utzi, ta irten zan On Mikol lan-gelatik ...!

Bat-batean irten ziran Yaneta-ren burutik Gaxuxa-k sortu zizkion kezka guztiak ... Ura ote zan, ba, Gaxuxa-k iragarri zion zorigaitza...? Artu ere gin zuan urrutizkiña, baiñan Gaxuxa-k ez zuan urrutizkiñik etxean ... Biaramon goizean esan bearko zizkion, ba, goiz artako gora-berak ...

Eta pozaren-pozez mai-gañean zeukan irakurgaia irakurtzen asi zan Yaneta ...

Ez ote zan irakurgaia ura Yaneta-beraren edestia...?

- II -

Ogei urte igaro dira gerozt. Ogei urte ...!

Eta ogei urte auetan eriotz bi izan ditugu: On Mikol-ena bata ta Yaneta-rena bestea ...

Goian begoz ...

Ez degu On Permin-en berririk. Ez dakigu ez bizi ote dan, eta ez il ote dan ere ... Bizi ba'da ere, ez da gazteagoa izango noski ... Urteak ez dira alperrik igarotzen ... Eta beste ogei urte ez dira utsaren urrengoa, berrogei ta amar urteko gizon batentzat ... Noiz merezi ote du bestela gizon batek "zaar" izena ...?

Urrutiak ere gauza asko aaztu-erazten dizkigu, gure bizitzarekin zer-ikusi aundirik ez ba'dute batez-bat... Eta Gaxuxa-k eta Petrik-k ez dute gure edesti onekin zer-ikusi aundirik ... Utzi ditzagun, ba, pakean ...!

"Bidaso" erreka arutz aurkitzen gera orian, eta berri-berriak ditugu gure edestiko zati ontan agertzen zaizkigun gizakumeak ... Eta Beñat apaiza degu auetan leenego datorkiguna

Ederra izan zan benetan Beñat apaizak egun artan egin zuan predikua. Ederra ta arrigarria benetan ...! Ez zekian ark, artean, bertako Epaila jaunak ikustatu bear zuanik ... Eta ala ere, ark bere itzaldian ibilli zuan gai ura bera, izango zan Epaille jaunak ekarriko zion jardun-gaia ere.

Karitatea izan zan Beñat apaizaren itzaldi-gaia. Eta auek izan ziran, karitateari buruz, Beñat apaizak bere itzaldian esan zituan gauzak:

Karitatea egiteko txanpon batzuek iñoiz bear-bearrezkoak izaten ba'dira ere, txanpon oietan ez dago karitatetik. Txanponak ez dute maitasunaren berri, ta karitatea ez da maitasuna baizik: Jaungoikoa'ren izenean lagun-urkoari zor diogun maitasuna ... Karitatea ez da, ba, aberastasunez txiro diranekin egin bearreko gauza ... Karitatea maitasuna baldin ba'da, txiroa bezain maitasun-bear izan leike iñoiz aberatsa ere ... Maitasun-bear dan guztia, da karitate-bear ere ...

Asko dira munduan, ezkontzatik-kanpora jaioak maitasuna zer dan ere, iñoiz ezagutu ez duten errukarriak... Zakar batzuek besterik ez ba'lira bezelaxe, artu izan ditu auek beti munduak ... Ez du munduak auentzako maitasunik izan . Eta maitasuna eman bearrean espetxeak sortu ditu munduak auentzat ...!

Lapur eta eriotz-egilleak izango dira gaur bear ba'da ... Baiñan ez ote ditu maitasuna-ez onek, lapur eta eriotz-egille egin ...? Munduak maite izan ez ba'ditu, zer dala-ta maite bear zuten eurak mundua...?

Bixente zeukan etxean zai Beñat apaizak.

Mutil-zaar antzekoa ta basarri bateko semea zan Bixente. Zirikalaria. Onela agurtu zuan Beñat apaiza:

- . Zure predikua entzun eta emen nator ni nere maitasuna eman naiean ...

- . Ondo zegok, Bixente ...! Ta nori eman nai diok ire maitasun ori ...?
- . Eman nai bezela, neskaxa gazte bateri ... Baiñan neskaxa gazteak ez dira guretzat egiten diranak. Aberatsak erosten dituzte auk. Eta batekin konformatuko ba 'lira, ezer ez ...! Onelakotxea da mundua On Beñat ... Eta orregatik izaten dira ainbeste ezkontzatik-kanpora jaioak ... Oietako askoren aita dirua da On Beñat eta zuk-zeorrek esan dezu bezela, diruak ez du maitasunik ...
- . Ez al'dek, ba, egia ori, Bixente ...?
- . Bai, jauna, bai ... Ta ortik dator gure zorigaitza ... Aiek neskaxa batekin aspertzen diranean, baztarrean uzten dute, ta guk jaso bear izaten ditugu, gero, auk utzitako ondakiñak ...
- . Zer ari aiz esaten, Bixente ... Ez det orrelako izango ire andregai ori ...?
- . Ez, On Beñat, ez ... ! Nere andragaiak ez ditu nik ditudan akatsak besterik: zaar eta itxusi-xamara izatea alde batetik, eta ni bezain txiroa izatea bestetik ... Oietzaz-kanpora neska ona da nere Mantoñi.... Ona bezain aberatsa ba 'litz ...?
- . Zer ...?
- . Aren dirukin erosiko nukela nik ere bear ba 'da...
- . Ez zak kertenkarik esan, Bixente ...!
- . Ez, Beñat, ez ... ! Gu ez gera orrelakoak. Jaungoikoa'k seme-alabarik ematen ba 'digu, ezkontza santuan jaiotako seme-alabak izango dira gureak... Ez zazu orren kezkarik izan, On Beñat ... !
- . Ondo zeok, Bixente ... Ta noiz ezkondu nai uke, ba ...?
- . Emendik irun-bat illabetera ...!
- . Jesus ...! Ba 'dek oraindik naiko asti ...!

Ez zuan Epaille juanak, Bixente'k antzeko jolaserako gogorik ekarri ...

Azkena ekarri zioten gaizkillearekin izan zuan jardunak, buruko min aundia sortu zion... Ez jan eta ez lorik, ez zuan egiten geroztik. Kezkaz bete bait-zion barru guztia gaizkillearekin izan zuan jardun ark. Eta bere barrua ustu naiean-edo etorri zan Beñat apaizarengana ... Lagun-zaarrak zira biak ...

- . Izango dezu azken atzitu duten gaizkillearen berri ...?

- . Ez det ezer entzun ...!
- . Ogei urte inguruko mutil gaztea oraindik ... Eriotz bat eta beste lapurreta asko egindako mutilla... Iñungo lotsarik-gabe aitortzen ditu bere gaiztakeri guztiak, baiñan ez du aien damu txikienik ere agertzen. Errugabea ikusten du bere burua .!
- . Errugabea ...?
- . Bai... ! ta ez uste izan burua galdurik daukan gazte bat danik. Ez ...! Ba'daki izketan. Eta ematen dituan arrazoiak dira nolanaikoak. Ez du bere alde egingo duan inor bere ondoan nai orain. Leen omen zan ortarako garaia. Ez orain ...! Zuaiza ere gaztetan zaindu bear dala zuzen igo dedin ... Zaintzen ez dan zugaitza zuzen igo bearrean albo batera makurtzen ba'da, ez dala ori zugaitzaren errua ...! Ta ori besterik ez dala berarekin gertatu ...!
- . Eta zer egin dezaiokegu guk orain ...?
- . Ezer ez ...!
- . Ezin utziko diogu beintzat, txakur bat ba'litx bezela, aitorketa on bat egin-gabe iltzean...!
- . Ara, On Beñat ...! Zuek, apaizak, aitorketa on batekin konpontzen dituzute gauza guztiak. Baiñan ori ez da dana ... Aitorketa on batek zeruko ateak irikiko ditu nai ba'dezu, baiñan aitorketa ori nork egin bear luken jakin nai nuke nik: edo gaizkille orrek edo guk ...?
- . Ez det ulertzen zer esan nai didazun...!
- . Ni ere ez nintzan orain arte gauza onekin konturatu . Amaika gaizkille antzekoak zigortu-erazi ditut zoritxarrez "au edo bete" egin dituztelako, ta ez det, oraindik, oiek ortara bultzatu duanik zigorkatu. Ta auena da erru geiena. Ez aiena ...Zer izatea nai dezu, On Beñat, ume-umetatik zakar bat bezela baztartua, beti izan dan bat ...? Inork errukirik izan ez dion bat ...? Munduak beti oztikozka ibilli duan bat ...? Karitate izan asko ezpañean, eta maitasunik ez biotzean. Orrelakoxeak gera gu ... Ta guk besteeri ematen ez dieguna, orixe nai genduke guk besteengandik artu ...! Entzun det zure predikua, On Beñat. Zure itzak ez dira neretzako alperrikakoak izan ... Esku artean daukat gaur maitasun-ebak gaizkille egin duan bat ... Eta zer egin bear det nik orain gazte onekin... ? Aske laga ...? zigorkatu ...? Izan ere, besteen erruak ikusteko begi argiak ditugu guk, ez ordea gureak ikusteko ...!
- . Egia diozu ...!

- . Egia diot, bai ... ! Baiñan egia esateak ez du basta... Egin, egin bear det nik orain, erabaki bat artu. Edo gazte ori zigorkatu ta munduaren maitasun-eza txalotu, edo gazte ori askatu ta munduaren maitasun-eza zigortu ...? Ez zait beste biderik gelditzen. Eta zer egin nezaket, On Beñat ...?
- . Zer esango dizut, ba, nik ...! Nere predikua entzun dezu ... Baiñan munduak itxu irauten duan artean, onelako gazteaz beteak egongo diragure espetxeak...! Ba al' dugazte orrek gurasorik...!
- . Ez ...! Neska zan orren ama, baiñan illa da gaur ...
- . Aitarik ez du beraz ...?
- . Aita ezagunik ez beintzat ...!
- . Dirua ote degu, ba, orren aita ere ...?

- III -

Tristeak izan ziran Yaneta'ren azken urteak...! Amaika negar egin zuan gajoak bizi-lekutzat "artu" zuan ganbara -zulo artan ... Etxe on bateko alaba baterentzat ba'zan ura azkena ... ! Ez zion Gaxuxa'k gezurrik esan, ez...! Ez zan sorginkeria ark ikusten zuan zorigaitza ...! Ta antxen zegoan zorigaitza: On Mikol'ek ekarritako gozo aietan ...!

Gero ta sarriagoak, eta gero ta aundiagoak izan ziran On Mikol'ek Yaneta'ri egin zizkion esku-erakutsiak...

Lantegi aundiko nagusi batek errez billatu oi ditu aitzakiak. Eta Mikol ez zan beste asko ez bezelakoa ...

Gero ta atsegingarriagoa zitzaion On Mikol'eri Yaneta'ren laguntza, Yaneta'rekin egotea ...!

Berandu arte euki oi zuan noiz-naï lan-aitzakian... Alkarrekin bazkaldu edo afaldu oi zuten orduan ...

Eraman oi zuan iñoiz erbestera lan-aitzakian ere... Yaneta'ren gurasoak ez zuten ibilaldi auetan txarrik ikusten... Ain izan izen oneko gizona On Mikol... !

Baiñan...

Estu ta larri zegoan egun artan Yaneta ... Lotsagarri zan On Mikol'i egin bear zion aitormena ... Lotsagarria ta bildurgarria ...! Baiñan ez

zeukan beste biderik...!

On Mikoi lantegian agertu zanarekin batean, negarrari eman zion Yaneta'k ...

- . Zer dezu, Yaneta...? galdetu zionurduri On Mikol'ek.

- . Ezer ez ...!

Baiñan Yaneta'ren negar arek beste zerbait adierazten zion On Mikol'i ...

Kezka bildurgarri bat sortu zan orduan On Mikol'en barruan ...

- . Yaneta, ez zera ba ...

- . Bai, On Mikol, erantzun zion orduan Yaneta'k ... Bi illabete dira nere "gauzak" ikusi ez ditudalarik, eta bizitza barri baten jabe ez ote naizen, bildur naiz...

On Mikol'ek ez zuan ordutik pakerik izan ... Biidur aundia sortu zion Yaneta'ren aitormen onek ... Zer esan bear zuan bere emazteak ... ? Zer Yaneta'ren gurasoak...? Zer On Permin'ek, bere apaiz lagunak...? Zer lantegiko jandeak ...? Zer ain elizkoitzat zeukaten guzti aiek ...?

Derrigorra zeukan "eskandalo" ura galeraztea ...! Nola, ordea...? Sortu-berria zan bizitza ura galdu-erazteak, erio ikaragarria ematen zion. Ondo bait-zekian pekaturik aundienetako bat bait-zala ura, ta ez zuan pekatu arren errua berekin izan nai beti ... Ez zeukan, ba, bide bat besterik estutasun artatik ateratzeko, ta bide orrei eldu bearko zion nai-ta, nai ez ...

- Ba'dakit, Yaneta, gogorra irudituki zaizula esango dizudan au. Gure izen onak gorde nai ba'ditugu ordea, ez dago au beste biderik ... Erbestean, iñork ezagutzen ez zaituan toki batean, aurkituko det neretzat etxe bat eta an biziko zera zu... Ez dezu ezere falarik izango... Sarri-sarri izango naiz ni ere zurekin eta ez du emen, onela, iñork ezer jakindo ...!!!

- . Eta nere etxeakoak izango duten naigabea...?

- .Ez ote luteke, Yaneta, aundiagoa izango zu aurdun zaudela jakingo ba'lukete... Uri osoan zabalduko litzake gure pekatuaren berri. Ta nere izenakez-ezik, zureak ere ez luke orrekin ezer irabaziko. Zure etxeakoen lotsa izango ziñake, Yaneta. Zure etxeakoen lotsa, ta ezagutzen zaituen guztien lotsa. Ta ez urte batzuetarako

bakarrik, Yaneta, betirako baizik. Emen ez bait-dakigu pekatu ori barkatzen iñoiz...; ... Beste era batekoa izango da erbesteko zure bizitza. Ta emengoentzat, eriotzak nunbait izkutatu duan neskaxa bat besterik ez zera ixango. Ta eriotzak ez du pekaturik: ez du izen onik galtzen, Yaneta ...

Mingarria zan benetan Yaneta'rentzat etxetik igen egin bear ura. Mingarria gurasoak agurtu-gabe iges egitea ...!

Baiñan ez zeukan etxean egoterik ere.

Ez zeukan egindako pekatua izkutzerik. Gero ta nabarmenagoa azalduko zan au, ta ez zeukan On Mikol'ekin ezkontzerik ere ...

Eriotza...!

Norberaren eskuetan egotea, pozik besartuko zuan orduan Yaneta'k. Baiñan ez zeukan au ere bere esku ...

Il ba'ltiz bezela, negartuko zuten bere gurasoak ark etxetik iges egitean ... Urte oso batean bear ba'da... Eta ez ote zan ori obe, bestela izango zuten betiko naigabea baiño ...?

On Mikol'ek erbestean artu zuan etxe ark, ez zeukan aitzakerik. Ederra zan eta aberats jantzia ...

Ala ere, bere etxekoak zeuzkan beti Yaneta'k buruan... Aiek izango zuten miñaren garratza...! Gau ta egun osoak negar batean igarotzen zituan gajoak...

On Mikol'etortzen zitzaion bakoitzean, gauza berdiñak esaten zizkion onek: ari zirala ark utzi zuen utsunera oitzen: iñork ez zuala ezer txarrik pentsatzen: oinperatu-gabeko elurra bezein garbi gordetzen zutela aren izena ezagutu zuten guztiak eta abar ...

Eta ez zan guztia gezurra...!

Yaneta'ren gurasoak On Mikol'engana jo zuten utsaz oartu ziran bezein laister...

Eta ikustekoa izan zan On Mikol'ek agertu zien naigabea ... Ez zegoan gauza ura ola uzterik ... Alegin guztiak egin bear ziran Yaneta'ren aztarnen bat arkitzeko ... Bere gain artu zituan alegin guzti auek egitea, ta an ibilli zan batetik-bestera lantegian agertzen ez zalarik ia ...

Ondo bete zuan On Mikol'ek bere gain artu zuen "egiteko" au ... Onela uste izan zuten beintzat Yaneta'ren gurasoak, eta eskerrik beroenak eman zizkieten bene-benetan ...!

Ontan bukatu ziran guraso on aientzat Yaneta´ren kontuak ...

Garaia eltzean, ume eder bat izan zuan Yaneta´k.

YON izena eman zioten ume oni.

Ez zion On Mikol´ek bere abizenik eman ...

Aita ez-ezagunaren semea izango zan Yon ...

Edo-ta beste ark zion bezela: dirua izango zan Yon´en aita ...

- IV -

Zorigaitza ez da bakarrik etortzen dan gaitza. Zorigaitz batek urrean du bestea. Onela izan zan Yaneta´kin ere ... Bat-batean azkendu ziran On Mikol´en etorrerak. Yon´ek ez zituan zazpi urte besterik artean...

Zerote zuan On Mikol´ek...? Aspertu egin ota zan, aaztu Yaneta´kin...?

Yaneta´k iñoiz jakin ez ba´zuan ere, bat-bateko eriotza izan zuan On Mikol´ek ... Bat-bateko eriotza...! Ta On Mikol´en eriotzak, Yaneta´ren "eriotza" ekarri zuan. Yaneta´ren ondamendi osoa... Erbestean eta xentimorik gabe, onela ikusi zuan azkenean Yaneta´k bere burua ...

Etxe-errenta pagatzeko guaza ez, etxetik -kanpora atera zuan bein etxe-nagusiak ...

Ez zuan, ala ere, kale gorrian utzi...! Bere beste etxe bateko ganbara-zulo batera eraman zuan...An ez zuan etxe-errentarik ordaindu bearrik izango...Onela agindu zion, beintzat, etxe nagusiak...

Etxe-errenterik ez... eta etxe-errenta bai ... Etxe-nagusi ura izan zuan geroztik Yaneta´k, On Mikol´en ordezkoko gizona bat ... Zekena bera ... Artzen bai, baiñan ordaintzen ez zekian gizona...!

Azker ezagutu zuten beste gizon batzuek ere, ganbara-zulo artarako bidea... Semetxo bat mantendu bear zuan, eta mixeririk gorrienean bizi zan ama bat diruz menderatzea, ez zan lan zaila gizon aientzat. Aberatsak bait-ziran erak...!

Eta Yaneta... Yaneta gajoak ez zuan beretzat beste biderik ikusten... Erbestean eta bakar-bakarrik...! Etxekoantzat illa...! Yontsu ez izatea, ez zan, ez, ain beera eroriko...!

Ema-galdua...!

Ez zioten etxepekoak beste izenik ematen...! Ez zioten agurrik egiten...! Ez zan arentzako errukirik...! Ez arentzako, ta ez Yontxu'rentzako ...! Iñork ez zion oni ogi-koxkarrik eman...! Ez zion iñork itz-goxorik esan...! Ez zion iñork loxintxarrik egin...! Zakarkeria, maitasun-eza...! Auetxek izan ziran Yontxu-rentzat munduak gorderik zeuzkan bi gauzak...! Eta giro ontan irikitako loreak, ota-lore izan bear nai-ta ez: arantza askoko lorea...!

Entzun dezaiogun Epaille jaunari, berak egiten dion aitormen garratza...

Ez nuan ikastetxera joaterik izan...!

Etxean ikusia, ta kaleko erruki-eza ziran nere irakasle bakarrak. Ez zan gaiztoa nere ama...

Biotz-gabeko gizonak amildu zuten nere ama loikerian...

Amaika negar egin zuan gajoak...!

Amaika alperriko negar...!

Eta biotz-gaiztoko gizon oiek izenik oneneko gizonak ziran gizartean...

Espetxeak ez dira oientzako jasotako etxeak...!

Espetxeak guretzako jasotako etxeak dira ...

Munduak doakabe egin gaituentzat jasotako etxeak...!!!

Nere ama gaixorik gelditu zan egunetik ez zan iñor agertu gure ganbara-zuloan...

Ez leen etortzen gizonik...

Ez etxepean bizi ziran emakume "on-on" aietakorik...

Ez sendagille bat ...

Ez apaiz bat ...!!

Eta nik ez nuan ate batean laguntasunik eskatzerik...

Iñork maite ez ginduzela ondo bat-nekian nik...!

Otoitz batean igaro zituan nere amak bere azken orduak ...

Jaungoikoa'ri erruki eske...!

Ni bakar-bakarrik utzi bearreko penetan...

Berak bakarrik maite ninduan...

Bera bakarrik maite izan nuan...!

Eta il zanean ...

Ez nituan nik artean amabi urte besterik...

baiñan ez naiz iñoiz-ere aaztu...!

Nere amarentzarako ez zuan iñork malko bat bakarra ere izan munduan...

Zergatik maite bear nuan nik gero neretzako ain-ankarra izan zan mundua...?

Nere amaren gorputzari lotua nengoan artean...

Lau gizon, nik ez dakit nork bialduak, agertu ziran bat-batean ganbara-zuloan...

Ez zuten aiek ere, nere naigabearentzat itz gozo bat ere izan...

Nere ama ez zan iñor aintzako ...

Eta ni gutxiago ala ere.

Ildako txakur bat ba'lit bezelaxe ipiñi zuten balarta batean...

Txapelik ere ez zuten kendu ...

Ez zidaten, gezurrez ere, "naigabea laguntzen zaitut", esan...

Eta an eraman zuten zigarro bana piztu ondoren...

Nik ez dakit nora ...

EZ det bein-ere jakin...!

Ori ere ukatu bear zidan munduak...

Ez det nere ama estaltzen duan lurrari muxu bat ere ematerik izan...
Apaizak...!

Nun ziran orduan apaizak...?

Ez zan bat ere izan nere amari "Pater noster" bat esateko...

Ez zan bat ere izan nere amaren gorputza ur-bedeinkatuz bustitzeko...

Eliz-illetarik gabe eraman zuten nere ama, nik ez dakit nora...!

Lapurra izan naizela...

Eriotz bat egin dedala...

Bai...!!

Ez det aitortzeko lotsarik...

Ezdet egindako damutik...

Zer itxaron zeiken munduak, berak onela artutako mutil baengatik.?

Errudun naiz, bai...

Ez det nere errua ukatuko...

Baiñan ez al' dira errudun...

On Mikol ...?

Etxe-nagusia...?

Nere ama ema-galdua biurtu zuten biotz-gaiztoko gizon aiek...?

Etxepako emakume "santa" aiek...?

Apaizak...?

Errukirik eta maitasunik ezagutzen ez duan gizadia...?

Eta zu, irakurle...?

Orain ez da nere alde lan egiteko garaia...

Nereak egin du...!

Ez det, ba, nere ondoan nai gaur, ez apaizik eta ez lege-gizonik...

Leen, mutil-koxkor nintzanean, bear nituan nik oiek nere ondoan, ez gaur ...!

Ikasiko al' du munduak nigan bear-bearrezko zaion ikaskizun au: ni bezelako bat ostikozka ibiltzearekin ez duala ezer irabezten...

Maitasuna eta errukia eskatzen dituala mixeri-gorrian bizi dan batek. Eta maitasun eta erruki ori ematen ez zaion artean, alperrikakoak dirala espetxeak...

Ni ez nintzan ain gaiztoa izango...

ta ez zan nere ama Yaneta ain-beera eroriko...

maitasun eta erruki pixkat billatu izan ba'genduan gizonen artean...!

Anastasio Albisu Ayerdi

1.964 - Epaillea'n.

ETXEBELTZ'ko **NAGUSIA...!**

Anastasio Albisu Ayerdi

ETXEBELTZ'eko NAGUSIA...

- I -

Itz auekin ematen zuten berria goizeko izparringiak: Uriko kaleetako batean illa agertu zan bart Etxebeltz'eko nagusia. Pistola-tiroz egindako zauri batek zulatu zion biotza... Ez da oraindik eraillearen berririk...!

Eta izparringi oietako batzuek Etxebeltz'eko nagusia nor zan ere, esaten zuten. Ezaguna bait-zan urian, eta izen aundiko gizona Etxebeltz'eko Koldobika...

Zaara izan ez aren, ez zion Jaungoikoa'k artean seme alabarik eman...

Bere emaztearekin eta bere amarekin bizi zan Koldobika Etxebeltz'ean... Emakume polita zan Margari, Kolbobika'ren emaztea, ta urteak ez zuten ia batere zatartu Matxalen, Koldobika'ren ama Illuntze oro biltzen ziran Etxebeltz'ean ere, Permin, Koldobika'ren laguna, ta Begoña, Permin'eren emaztea...

Ez zan kontu-faltarik, izaten emakume aien artean. Beti zuten zertzaz jardun...

Beste jardun batzuek ziran Koldobika ta Permin'eren arteko jardunak. Lantegi-beraren jabe ziran biak eta lantegiko gora-berak izan oi ziran bien-arteko jardun-gaiak.

Etxebeltz'ean ez zegoan, ba, asarre-biderik. Pakea ta zoriona ziran an-bertako nagusiak...

Egun batean, ordea, sortu zan Etxebeltz'ean ere asarre-bidea. Margari'ri eldu zitzaion eskutitz batek urrundu zuan, bein-betirako Etxebeltz'eko zoriontasuna... Eskutitz arke ez zuan argazki bat besterik ekartzen. Eta argazki artan, emakume galdu oietako bateri eldu-eldurik ikusten zan Koldobika...

Ez zuan Margari'k argazki ura artu zuanik ere esan. Giltzapean gorde zuan kutxatxo batean, eta kolkoan artu zuan kutxatxoaren giltza...!

Koldobika'k ez zekien zer pentsatu...!

Ordu artean, etxeratzen zan bakoitzean, an egoten zitzaion muxu bat emateko zai Margari ... Geroztik, ordea, ez zuan Koldobika'k Margari'ren muxurik artu. Bere gelan izkutatzen zan au, ura etxera-

tzen zan bakoitzean... Amaika otordu egin zituzten, ordutik aurrera bakarrik, Koldobika'k eta bere ama Matxalen'ek...

Gau batean bere gelatik-kanpora oeratu zan Margari, eta alperrikakoak izan ziran ama Matxalen'ek eta Koldobika'k egin zizkioten arren guztiak. Ez zuan aterik ere iriki, ta uraxe izan zan aien-bien-arteko ezkontzaren azkena...

Koldobika'k uste ez bezelako zergatiak zeuzkan Margari'k, artu zuan erabaki ura artzeko...! Argazkiarena ortarako naikoa ez ba'zan, etxegalduetarako sarrerak argitzen zituan noiz-nai Margari'k Koldobika'ren txamarra-barreneko poltxikoetan... Ba'zuan, ba, zergatik asarre egon ...!!!!

- II -

Egun artan Etxebeltz'era etorri zan eskutitza ez zan Margari'rentzat izan, Koldobika'rentzat baizik. Eta izenpetugabeko eskutitza zan ...

Elurra bezin zuria gelditu zan Koldobika, eskutitza ura irakurri zuanean

"Ondo dakizkit, esaten zion norbaitek eskutitza artan, nere emaztearekin dituzun artu-eman lotsagarriak, bañan zure odolarekin ordainduko dituzu. Egun gutxi-baru nik-neronek ilko zaitut..."

Ez zan au Koldobika'k, egun aietan, artu zuan eskutitza bakarra. Egun biz-bat artzen zuan onelako eskutitza bat. Eta eskutitz guzti auek egun gutxitarako bizia ematen zioten Koldobika'ri.

Etxebeltz'ean egunero biltzen ziran Permin eta Begoña'ren iritzian, ertzaiñak jakiñen-gaiñean ipintzea zan Koldobika'k egin zezakean gauzarik egokiena... Iritzi berdiñekoa zan ama Matxalan ere... Margari'k ez zuan gai onetan iritzirik... Bere gelatik irten gabe bizi zan Margari, eta, jakin ere, ez zuan onek jakin eskutitza aien berririk.

Illuntze batean onelako iru eskutitza berri artu zituan batera. Orduantxe artu zuan Koldobika'k ertzaiñetara joateko erabakia. Ta an-artean artu zituan bederatzi eskutitza aiek artu, ta irten zen etxetik...

Permin eta Begoña Etxebeltz'era eldu ziranerako ez zegoan an Koldobika. Ordu-beteren bat izango zan ura etxetik irten zala ...

Laister etorriko zaia-ta, zai ta zai egon ziran gau-erdirarte Matxalen, Permin eta Begoña. Ez zan, ordea, Koldobika'rik ageri ...

Aren billa irtengo zala-ta jeiki zanean Permin, ertzain bi agertu ziran Etxebeltz'eko atean...

Ez zan batere pozgarria ertzain auek zekarten berria. Polizi-etxera zijoala, bateren-batek il egin zuan Koldobika, ta il-errira jaso zuten aren gorputza...!

Ama Matxalen'en naigabeak ez zuan neurririk izan. Korderik-gabe eror zan Permin eta Begoña'ren besoetara ...

Nekazagoa izan zan Margari'ren negarra. Koldobika'ri artu zion amarru ark, ez zion malkorik ematen...

Bañan leenego malkoa sortu zitzaionean, ama Matxalen'ena baño aundiagoa izan za Margari'ren naigabea...

- III -

Etxebeltz'ean biltzen ziran aientzako ez zegoan dudarik. Eskutitza aien egilleetako batek il zuan Koldobika... Onela zioten Permin'ek eta Begoña'k. Eta iritzi berdiñekoak ziran ama Matxalen eta Margari ...

Ertzaiñak bakarrik ziran euren iritzia azaltzen ez zutenak...!

Onelakoetan oi danez, Etxebeltz'ean biltzen ziran guztiak azaldu bear izan zuten ertzaiñen aurrera, eta Koldobika'ri buruz zekiten guztia esan...

Berdin egin bear izan zuten lantegiko idazkaritzan Koldobika'rekin lana egiten zuten guztiak...

Itzerik esaten ez ba'zuten ere, ez zeuden lo ertzaiñak.

Koldobika'ren txamarra-poltxikoan arkitu zituzten bederatzi eskutitza aiek, balio aundikoak izango ziran ertzaiñentzat. Eskutitza auetatik aterako zuten eraillearen leenego aztarna ...

Etxebeltz'ean agertu zan berriro ertzaiñetako bat eta Margari'k kutxatxoan gordetzen zituan argazkia eta etxe-galduetarako sarrera aiek eskatu ziozkan... Uste ez-bezelako garrantzia zeukaten orduan argazki ta txartel aiek...!

Lantegiko idazkaritzan ere noiz-nai agertzen ziran ertzañak eta ond asko aztertzen zituzten gañera bertako gauza guztiak...

Etxebeltz'ean biltzen ziranak ez zeukaten geiegiko itxaropenik ertzañak ari ziran lanean... Beste askoren eriotzak bezala, utsean geldituko zan Koldobika'ren eriotza ere aien iritzian...

Ez ziran iritzi ontakoak ertzañak. Eraillerik arkitu ez ba'zuten ere, ordurarte emandako urratsak ez ziran alperrikakoak izan ...

Ziur zekiten ertzañak, batek egiñak zirala bederatzi eskutitza aiek: argazki ura ez zala benetako argazki bat, bi argazkiekin egindako argazki bat baizik, eta Koldobika ez zala sekula etxegalduta aietan izan...

Nork ipintzen zituan, ba, Koldobika'ren txamarra-barrenetako poltxikotxoan txartel auek...? Nork ipiñi zezazkean...?

Ertzañentzat ez zegoan dudarik Koldobika'rekin idazkaritzan lana egiten zuan bateren-batek...

An zegoen, ba eraillea...!

Ala ere, ba'zan oraindik ertzañak ikusten ez zuten gauza bat. Eriotz ura egiteko zergatia...!

Idazkaritzan lana egiten zuten guztiak, oso ondo konpontzen ziran itxuraz beintzat. Ez zan aien-artean asarrerik izan, eta Permin'n eta Koldobika'ren artean gutxiago ...

Ez ote zegoan idazkaritzan lana egiten zuten bi neskatxa aietako bat Koldobika'rekin txaratuta...? Eta ez ote zituan onek guaza guzti aiek egin, Koldobika'ren eta Margari'ren arteko ezkontza ura ausi ta Koldobika bereganatzeko...? Ta au iritxi ez zuanean, ez ote zuan berak il Koldobika ...?

Koldobika'ren eriotzarekin idazkaritza artan izan zan aldaketak eman zion ertzañari egiazko aztarrena... Ordurarte ari ziran lana alperrikakoa zala orduan-eta, bat batean utzi zuten lan ura ... Zeiñen aginduz...! Azkenego iru urteetako gora-berak astertzea bait-zan lan ura...!

Lan arrei jarraitzeko agindua eman zien ertzañak, eta laister agertu zan gora-bera aietan estali-eziñezko zulo bat. Zulo au izan zan, ba, Koldobika'ren eriotzaren zergaitia. Eta Permin'ek egindako zulo bat

zan au...! Erailea ez zan, ba, Permin besterik. Bera zan Koldobika´ren txamarrako poltxikotxoan etxe-galduetako sarrerak ipintzen zituana, bera Margari´ri gezurrezko argazki ura bialdu ziona, bera eskutitza aiek idazten zituana... Guzti auekin ez zuan Permin´ek besterik nai, eskutitza aien egille aietako baten-gain bota, egitera zijoan eriotza...


Leendik askotan esan ziolako, ba´zekian Permin´ek azkenengo iru eskutitza aiek batera artzen zituanean, ertzaiñetara joango zala Koldobika... Ta an egon zan bide-ertze batean Koldobika noiz etorriko zan, zai... Ta eriotza egin bezin laister, bere emazte Begoña´rengana joan, eta agertu ziran biak Etxebeltz´ean egunero agertu oi ziran bezelaxe ...

Nork egin zion Margari´ri bialdu zion gezurrezko argazki ura, ta nork inguratzen zizkion etxe-galduetarako sarrerak, ez zuan Permin´ek aitortu nai izan ... Eta auxe izan zan ertzaiñak jakin ez zuten gauza bakarra...!

Ez dago eriotzarekin jolas egiterik...!!!!

Anastasio Albisu Ayerdi





EASO = DONOSTI....!

Anastasio Albisu Ayerdi

EASO = DONOSTI

Urgull-mendi gañean ezagutu nuan nik Easo: ogei ta bi urteko neskatxa ederra. Itxasoari begira zutik, maitaleak, maiten dun ari, begira oi dion bezela ...

An zegoan, mendi-gaiñ artan, Easo, Kantauri-itxasoak bialtzen zizkion laztan goxoak artuaz...

Aurrez-aurre jotzen zuan itxas-aizeak...

Aren buruko illeak igari zebiltzan itxas-aize gañean...

Aize aren indarrez, gorputzari lotua zeukan soñekoa, ta erreza zan gorputz aren egokitasuna ikustea...

Agirian zeuzkan besoak eta zangoak...

Ikusgarria Urgul-mendiak egun artan neretzako gordea zeukan ikusgaia...!

Sarritan igo oi zan Easo mendi-gain artara, andik ikusten bait-zuan, luze bezein zabal, ain maite zuan itxaso ura...!

Ganbara-antzeko tellape batean bizi zan neskazaar bat kai-ertzeko etxe zaar aietako batean... Mari zuan ark bere izena, bañan Mari Sorgin esan oi zioten bertako ume ta gazteak...

Irurogei urte baño geiago izango zituan. Ezurra ta azala besterik ez zan...

"Matutia" jo aurretik jeiki oi zan beti, ta makilla eskuan, zirri-zarra joan oi zan elizara...

Kakotua zegoan aren gorputza. Arpegitik igen egin nai bezela, aren sudurra. Ta bel-beltzak arek soñean zeramazkin soñekoa ta abar ... Ba zuan elizan ere, bere-berea zuan txoko bat, eta ez zan beste iñor an-inguruan jartzen... Sorginkeriren bat egingo ote zien bildur ote ziran, ba...?

Elizatik etxeratzen zanean, tellape ark zeukan leiotox baten aurrean eseri, ta an egoten zan itxasoko bazter bateri begira, illunak itxasoa izkutatzen zion arteraño...

Ekamume on batzuek uzten zioten ganbarako-ate aurrean jateko zerbait...

Onela bizi zan Mari-Sorgiñ...!!

Lizar-adartxo batek adierazten zuan erriko enparantza aurrean zegoan sagardotegia...!!

Sagardotegi onetan biltzen ziran, igande-arratsaldeetan batez ere, legorrean arkitzen ziran mariñel gazte ta zaarrak...

Beti izan oi zuten bertsolariren bat euren artean.

Bakallau puska, gazi-antzeko bat eta ogi zati bat izaten ziren arrantzale zaarrak sagardotegira eraman oi zuten jatekoa... Zer oberik, bertso batzuek entzuneta sagardo goxoz betetako pitxarrak ustutzeko...?

Ate-ondoko mai ta aulkietan jartzen ziran mariñel gazteak. Bertsolariaren kantuari baño kaso geiago egiten zioten auek, enparantzaren agertzen ziran neskak gazteeri...

Biñaka ta irunaka etortzen ziran auek enparantzara. Ta enparantzako bazter batean biltzen ziran lotasti, sagardotegira-begiratzen ausartzen ez zirala... Ondo zekiten, ala ere, auek, zeintzuk ziran sagardotegian zeuden mutillak... Zearka begiratuta ere, ikusten bait-du neskakaren begiak...

Txistulariaren soñuak ateratzen zituan sagardotegitik arrantzale gazte aiek... Erabakia eukitzen zuten ordurako, norekin dantzatu bear ziran, eta aren billa joaten ziran zuzen-zuzen...

Igande artan Axantxa izan zan Easo´ren dantza-laguna...!

Itxasoan azitako mutilla degu Axantxa...!

Ume-koxkorra artean, eraman zuan bein bere aitak itxasora, ta lilluratu egin zuan itxasoak, eta an bizi izan zan geroztik... Amaika ondartzat eder ikusitakoa zan Axantxa...!

Ondartza oietako batean arkitu zuan, bein, kontxa eder bat, eta bere gauzarik maiteena bezela gorde zuan geroztik kontxa ura...!

Ez zan geldi-egotekoa Axantxa´ren aita...

Baleak irabazi asko ematen zituala-ta, baletarako ontzi bat egitea, erabaki zuan... Bera zaartzen ari zala-ta, Axantxa izango zan ontzi onen buru...

Gertu zegoan ontzia. Erosiak zeuzkaten baletarako bear ziran tresna guztiak, eta aukeratuak Axantxa´rekin ontzian joan bear ziran mutillak...

Ba´zan auen-artean, Axantxa´ren oso-gogoko ez zan bat... Nolabaiteko galtzak ibilli oi zitualako, Prakax esan oi zioten danak. Moskorra zan, eta kaiera eltzen ziran arrantzaleak ematen ziotenakin bizi zan...

Iñork ez zekian aren jatorriaren berririk. Itxasoak ondartzan utzitako ume bat zala, esaten zuten askok.

Onelakoxea zan Prakax, eta errukiz artu zuan Axantxa´k bere ontzian... Ai artu ez balu...!

Egun batetik-bestera irten bear zuan Axantxa´k bere ontzi berriarekin itxasora...!

Zer ote zuan Mari Sorgiñ´ek...?

Ez zuten elizan ikusi azkeneko bi egunetan...

Tellapeko leioan ere, ez zan bere irudirik ikusten...

Gaxorik ote zegoan, ba...?

Easo etxera joan zanena, onela itz-argin zion bere amak:

- . Mari Sorgiñ gaixorik dago, esaten dutenez, eta bildur naiz ez ote dan sendagille ta apaizaren bear izango...! Ta ikustekoa egongo da bera, ta ikustekoak egongo dira ganbara artako baztarrak... Pardeltxo ontan izara batzuek eta aldagarri bat ipiñi dizkizut, Easo... Zoaz ba, ta txukundu itzazu baztar aiek, iñork joan bear ba´du ere...

- . Mari Sorgiñ´arena ni...?

- . Ez zaiz tontona izan, Easo... "Sorgin" izen origuk esarri diogun izen bat besterik ez du Mari´k. Bera izan zan zure amona Gaxuxa´ren lagunerik aundiena. Ez zaite, ba, bildurtu...

Eta pardeltxoa eskuan zuala irten zan Easo etxetik...

Tellapeko atean kox-kox jo aurretik "Aitaren" egin eta "iru Agur Mari" esan zituan Easo´k.

Mari´ren "aurrera" abotsa entzun zuanean, sartu zan Easo tellape artan...

Amak esan bezela arkitu zituan baztar aiek...

Manta zaar batekin estalia, an zegoan Mari koltxoi baten gañean, ez izara ta ez ezer...!

- . Gaixorik egongo ziñala, ta erropatxo batzuekin bialdu nau amak... Easo, Gaxuxa´ren billoba naiz ni, Mari...

- . Gaxuxa´ren billoba...?

- . Bai, Mari, bai...!
- . Bera izan nuan nere lagunetik maiteena ... Or dezu aulki bat, jarri zaite bertan... Urte asko dira iñorekin hitz-egin ez dedala, ta zurekin egin nai nuke, gaur, itz-alditxo bar, Easo...
- . Ondo dago, Mari, bañan amaren esana bete bear det leenego.

Easo'k ekarritako aldagarri ta izara aiekin beste itxura bat artu zuten bai Mari'k, eta baita Mari'ren "Oe" arek...

Tellape berak ere ez zuan ain-illuna ematen

- . Eskerrikasko, Easo,...! asi zitzaien erdi-negarrez Mari... Neri baño zori ohea eman daizula Jaungoikoak... Izan nuan nik ere, zure gaurko sasoiak... Ta ez nuan orduan uste, onela arkitu bear nintzanik gaur ... Errian zan mutillirik jatorrenetako bat nuan orduan senargai... Arrantzalea zan bera. Ta Yoanes zuan bere izena... Egun batean itxasoan arkitu zuan ekaitzak... Ez ziran orduko ontziak gaurkoak bezin sendoak, eta , ala ere, zuzen ekarri zuan ark bere ontzia ugarte-pareraño. Ta or izan zan aren azkena...! Aitz batek zulatu zion ontzia, ta ekaitz-erdian arkitu zan iñungo laguntasunarik -gabe... Laister izkutatu zan gure begietatik, eta ez da geroztik aren arrastorik izan... Orduan etorri nintzan ni tellape onetara. Emendik ikusten bait da ondo ura ito zan lekua. Ta emen nago geroztik itxasoari begira ta begira, noiz itzuliko ote, orain berrogei urte ostu zidan Yoanes'en gorputza...! Zorotzat naukate errian, bañan nik ez det oraindik etsi, Easo...

Mari ez zan, ez , sorgiñ bat. Bein emandako maitasun-itza ondo gordetzen zekien emakume bat zen Mari...

Maitasun-kontuetan asko ikasi zuan egun artan Easo'k...

Biaramonean itxasoratu bear zuan Axantxa'k bere ontzi berriarekin. Easo'rekin egon gabe ez zuan, orde, itxasora joan nai, ta goiz-goizetik zebillan Easo nun ikusiko... Ez ote zan, egun artan, askotan oi zuan bezela, Urgul-gañera igoko...?

Agerpen bat bezelaxe agertu zitzaion, bat-batean Easo. Iñoiz baño ederragoa, eguzkietan diz-diz, eta kai-aldera begira...

Gogoan zuan nolabait Mari Sorgiñ'eri entzundakoa, ta Yoanes galdu zan leku artara begira zegoan... Ez ote zuan itxasoak Mari'ri itzuliko, bein-batean ostu zion Yoanes'en gorputz ura...?

Iñork ikusiko ote zuan biidurrez artu zuan Axantxa'k Urgull-mendirako bidea. Kolkoan izkutaturik zeraman ain maite zuan kontxa ura. Ez zan mendi-gañeraño igo ... Ondo zekian ark Easo'k ekarriko zuan bidea, ta bide-erdiko txara batean izkutatu zan Easo'ren zai. Gero ta gertuago aditzen zituan onen urratsak.

Bere izkutu artatik atera zanean, aurrez-aurre zeukan Easo...

- . Zuri baimen bat eskatzera etorri naiz, Easo...
- . Neri baimen bat eskatzea...?
- . Bai, Easo, bai... Jaungoikoa lagun, biar irtengo naiz baletara nere ontzi berriarekin, eta ontzi oneri izen bat ipiñi nai nioke. Zuk eta nik bakarrik jakingo degun izena... Laister biona izan bear du ontzi onek, eta "Easo" izena ipiñi nai nioke onegatik. Ematen al'didazu ortarako baimenik...?
- . Emango ez dizut, ba...! Bai, Axantxa, Bai...
- . Eskerrikasko, Easo...!

Eta kolkoan gorderik zeudan kontxa ura, kolkotik atera ta Easo'ri eman zion.

- . Auxe dezu, Easo, nik maite-maite dedan gauza bat. Oraindik umea nintzalarik jaso nuan urrutietako ondartzat batetik... Ez det geroztik ederragorik arkitu ... Gorde ezazu, bada, ni-neroni banintz bezela... Agur, Easo...!
- . Agur, Axantxa...!

Eta etxera iritxi zanean, laztan gozo-gozo bat eman zion Easo'k Axantxa'k eman zion kontxa ederrari...!

Ez zan besteak ez bezelako gizona txistularia ... Dantxa-aldi batzuek jo ondoren, egarritu egiten zan ura ere. Ta egarri ura iltzeko zer sagardoa baño ederragorik...?

Oituak zeuden txistulariaren atsedean onetara erriko enparantzan biltzen ziran dantzari aiek. Betikoa bait-zuan txistulariak atsedean au ...! Ta ontzat ematen zuten gañera gazte aiek, orduan alkarrekin itz egiteko asti pixka-bat izaten zutelako...

Igande artan Easo izan zan gazte aien jardun-gaia...!

Neskatxa guztiak izan oi diran bezela, dantza-zalea ta mutil zalea zanEaso, ta egunartan ez zan enparantzan agiri...

- . Nun dezute Easo...? galdetu zien aren laguneri Easo an nai zuan mutil batek...

- . Zer dakigu guk, ba...- , erantzun zioten auek. Joan zan igandean ere ez zan azaldu... Mari Sorgiñ'arengana joaten omen da orain igade arratzaldeetan...
- . Mari Sorgiñ'arengana...?
- . Bai... Mari Sorgiñ'arengana ...! Gaxorik egon bear du, ta arei laguntzeko aitzekietan joaten omen da...
- . Arritzekoa da ori ere, erantzun zuan, orduan, beste mutillak... Easo dan bezelako dantza-zalea izan, eta Mari Sorgiñ'arengana dantza-garaian...? Ummm! Ez ote da ori gero aitzaki bat besterik...!
- . Zer esan nai dezu orrekin...?
- . Ezer ez...! Bañan ez ote digu Easo'k izkuturen bat gordetzen...? Zeñekin dantzatu zan azkenengoz...?
- . Axantxa'rekin...
- . Axantxa'rekin...?

Bañan ez zuten jardunean jarraitzerik izan... Jo zuan txistulariak dantza-deia, ta dantzan ekin zioten berriro neska-mutik aiek...

Axantxa'rekin asi ote zaigun ba, zioten etxeratzean Easo're bi lagunak...!

Itxasoan zebillen, an artean, Axantxa ... Urrutiko itxaso batean... Balea noiz ikusiko zai...!

Asiera ona eman nai zion ontziari ... Ez zuan balerik-gabe Easo'ren aurrean agertu nai ... Ta begiak urratu bearrean zegoan beti itxasoari so...

Goiz batean...

- . Ea mutillak ...! deadar egin zuan bat-batean Axantxa'k...Lotu zuen besoak arraunerri, ta boga indartsu ... Gurea bear dit, an urrutian ikusten diaten baleak eta ...!

Eta mutil aiek arraunak artu, ta boga bizi batean irten ziran Axantxak ikusi zuan balearen billa...

Gero ta gertuago agertzen zan balea ... Ez ion Axantxa'k begirik kentzen ... Murgil baterik-bestera egiten zuan bidea, ondo neurtua euki nai zuan... Ez zuan bale ura galdu nai ...!

- . Izutu ez dezagun, kontu orain, mutillak... Boga bai, bañan urik arrotzeke... Ta i, Enaut, erne... Eman agertu bear dit, eta sartu

akiok biotzeraño arpoia...! Emen dek... bat, bi, iru ta ...
lau ...!

Eta bizkar gañean josi zitzaion Enaut´ek jaurti zion arpoia... Asarratu
zan balea. Astindu zituan bere inguruko urak, eta arpoia bizkarrean
murgildu zan berriro...

- . Boga, mutillak ...! Eta gertu i, Enaut. Eta sartu akiok, ba´da ez ba´da
ere, bigarren arpoia... Ez dezala igen egin...!

Eta leenegoa bezein gogor sartu zion Enaut´ek bigarren arpoia ere...
Eta murgiltzean odol-gorritz gorrituak utzi zituan urak baleak...

- . Gurea dat ...! Boga, mutillak, boga...

Eta agerraldi aietako batean albora etzan zan balea ur-azalean...
Garaipen-irrintzi bat entzun zan itxasoan... Arrantzale trebe aien
irrintzia...!

Urgul-gañean, eta eurak zeuden itxaso ari begira, ikusten zuan, une
artan, Axantxa´k Easo...

Ez zan, ez arritzeko... Kairako bidea artu zutenean, ba zuten zer
esana arrantzale aiek...

- . Aundia dek benetan...!

- . Gure kaian oraindik sartu ez dan bezelakoa...!

- . Asiera ona eman zioagu ire ontziari, Axantxa...!

- . Ezin ukatu...!

- . Zer pixu ote dik...?

- . Gero ikusi bearko diagu ori... Boga orain, mutillak...

Mutil aiek ez zuen Axantxa´ren agindu onen bearrik. Irristaka-
bezela zeramaten ontzia, ta ba´zan, orduan, ortarako indarra ... Bale
ura kaiaraño eramatea ez zan jolaseko gauza. Lagun zuten aizea,
bañan ala ere...

Ikustekoak ziran aien buruetako ametsak... kaian egingo zieten
ongi-etorria ... sagardotegian izango zuten jarduna... dantzara etorriko
ziran neskatcheen jakin-naia... jasoko zituzten irabaziak eta abak...

Amets auek maitagarriagoak ziran oraindik Axantxa´rentzat... Ikusi
egiten zuan onek Easo´k egingo zion irripar-goza...

Ala ere, ba'zan mutil aien artean bestelako ametask zerabilzkin bat... Pakatx...! Onentzat ez zan amets bat besterik: edana, ardoa...! Ardota gastatuko zituan ark baleak emango zizkion irabazi guzti-guztiak...!

Mutil-koxkarrik bildurtiena ere ausarditsu biurtzen da bere etxe-inguruan... Onela gertatu zitzaion Prakax'eri ere...

Kantauri-itxasoan sartu ziranean, etxe-inguruak zegoala iruditu zitzaion nunbait, eta iñungo lotsarik-gabe galdera au egin zion Axantxa'ri.

- . Bale onen mingaña norentzat izan bear duan jakin nai nitek, Axantxa...?
- . Ondo dakit ik ori, Prakax...! Orain-artean itxasoan ibilli ez ba'aiz ere, ondo dakik ik bale guztien mingaña elizarentzako izaten dirala... Guk ere nolabait ordainan bear zizkioagu "amarrenak" elizari ...!
- . Zuek bai nai ba'dezute, bañan nik ez ... Txakur bateri emango ba'zioat ere, ez dek elizak bere zatirik artuko... Ez elizak ez apaizak, eta ez JAUNGOIKOA'K ere ...

Kantauri-itxasoak ez zuan, artean, onelako biraorik entzun... Arrauneri eragiteko kemenik-gabe galditu ziran ontziko beste mariñel guztiak. Eta Axantxa'k izan zuan naigabea, ez zegoen neurtzerik... Errukiz artu bait-zuan onek Prakax bere ontzian, eta ona, Prakax'ek agertzen zion esker-ona...!

Ez ote zuan, bere ontzi berri aren gaiñ, Jaungoikoa'ren asarrea ekarriko Prakax'en birao arek...?

Zai bezela zegoan Axantxa...!

Laño-adar beltz bat jeiki zan bat-batean itxasotik... Bere inguruan illuna zabaltzen zuan lañoa... Ekaitzaren mandataria...!

Izkutatu zan eguzkia. Arrotu zuan aizeak itxasoa ta apar-zuria besterik ez zan ikusten itxas-gañean...

Gero ta aundiagoa zan illuna, ta gero ta zakarragoa ekaitza zekarren aizea... Dantza bizi batean ekin zion Axantxa'ren ontziak...

Bildurgarriak ziran ango tximistak eta bildurgarriak ango trumoi-otsak...

Ez an euria ari zana, txingorra zan bate-betan ontzi barrura erortzen ari zana... Ta ez nolanaiko txingorra...!

Ontzi ura irintxi naiean zebillen pizti amarratu bat ematen zuan itxasoak... Eta irintxiko zuan...! Ondo zekian ua Axantxa´k ere ... Eta ontzi arei, Jaungoikoa´ren asarreak ondoratu bear zuan ontzi arei Easo´ren izena eman izateak, ematen zion naigaberik aundienetako bat ... Ez zuan ark onelakorik uste izan...!!!!

Ondo bait-zekiten legorrean zeuden mariñelak ekaitza zer izaten zan... Bein baño geiagotan arkitu izan bait-ziran eurak ere ekaitzaren erdian...

Egun artako tximistak sortzen zuten argitasunari eskerrak, ikusi zuten aukerarik arkitzen zan Axantxa´ren ontzia. Ta laister zabaldu zuten erri osoan berria...

"Dun-dun" ekin zioten elizako kanpaiak.

Eta sasoiko gizonak kai-ertzean biltzen ziran bitartean, elizan biltzen ziran zaarrak eta emakumeak... Galdetu ere ez zuten askok egiten, norena zan arriskoa arkitzen zan ontzia... Gizon batzuek arriskoa arkitzen zirala jakitea, naikoa zan aientzat, elizan bildu ta otoitzerik beroenak gizon aien alde egitekoa...!

"Dun-duna" entzun zuan bezein laister, kezka bizi bat sortu zitzaion Easo´ri... Axantxa-ta ote ziran, ba...?

Jakin nai zuan, bañan ez zan galdera ori egiten ausartzen. Entzun bear zuan erantzunak bildurtzen zuan nunbait...

Ama billa etorri zitzaionean, Axantxa´k eman zion kontxa ederra eskuetan arkitu zuan...

- . Goazen elizara, Easo, esan zion onek beste-ezertan pentsatzeko ... Axantxa izan bear dute arriskoa arkitzen diranak...

- . Axantxa-ta ...?

Eta laisterka batean irten zan Easo, kontxa eder ura esku-artean zuala...

Zer pentsatu ez zekiala gelditu zan ama...!

Ez zan Easo elizara joan. Ez zuan Urgul-gañerako biderik artu ere... Kai aldean jende asko egongo zala-ta, ondartzarako bidea artu zuan Easo´k...

Ez zuan txingorraren bildurrik, ez tximistarenik eta ez trumoiarenik ere...!

Ondar-ertzean gelditu zan zutik itxaso asarratu arei begira. Noizean-bein, tximistak argi egiten zueanean ikusten zuan urak ia munderatu zuan Axantxa´ren ontzia... Negar zegiten Easo´ren begi ederrak... Negar ixilla... Ta esku-artean zeukan kontxa eder ark biltzen zituan Easo´ren begietarik ixurtzen ziran malkoak. Ez zuan gerora Axantxa´ren ontzirik ikusten ... Itxasoak irintzi bait-zuan azkenean...

Auek izan ziran Axantxa´ren azken-itzak: barkatzen diat, Prakax...

Mari tellapeko leio-atzean bezelaxe, gelditu zan Easo ere, ondar ertzean...

Alperrikakoak izan ziran amaren erreguak... Alperrikakoak erri guztiarenak ere... An finkatu zen Easo, ta ez zuan andik iñork mogituko ... Mari Sorgiñ´ek ba´zuan orain, nora begiratu, beste leku bat ere... Bera bezin biotz-dun agertu bait-zan Easo...

Arri biurtu zuan aldiak, Easo´ren gorputz eder aura. Ta ikustekoa zan aren ederra, ondartza ertzean eta kontxa eder bat eskuetan...

Egunero-egunero jeiki oi zan itxasotik gabiota bat, eta an joaten zan arri biurtu zan Easo´rengana, aren arrizko malko aiek txurgatu naiean... Arrantxale aientzat ez zegoan dudarik. Axantxa zan gabiota ura ...

Izen berri bat ipiñi zion geroak, kontxa eder bat eskuetan arri biurtu zan Easo´ri: DONOSTI ...

Anastaslo Albisu Ayerdi



PERNANDO AMEZKETARRA

ANTZERKIA

Albisu´tar Anastasio
"sustraitz"

Antzezlariak

Pernando	Sasoiko gizona
Erretore J.	Zaar-antzekoa
Joxepa Antoni	Neskazarra
Txomin	Zalduna
Patxi	Zalduna
Sakristaua	Mutilzarra
Andre Malen	Neskazar-zarra

- I -

(Amezketan gaude ... Amezketan ko Erretore-etxea degu iruditegiko atze-aldea. Iriki ta itxiko dan atea bear du etxe onek. -Bideak ditugu iruditegiko ezker-eskubi aldeak.- Pernando degu iruditegian.- Ikusleen ezker-aldetik izkutatu diran emakume bik egin dioten algara dala-ta, ari da jardunean...)

Pernando.- Ez dago gaizkil Nere bizkarretik parre egingo ote dute, ba oiek? Ez ala zankoal ... Ez dute nik aña mundurikl... Ez dira, ez erak ere gazte ta ederrak. A zer nolako bikotea! Nungoak ote dira erak? Ez dira urrutikoak izango; ondo ikasia daukate nere izena.

- II -

(Erretore J. agertuko da bere etxeko atarian.
Pernando'ri begira geldituko da.)

Diranak dirala, nerekikoak egin dituzte beintzat. Lotsagabea naizela? Onelako jendeakin izan bear nai ta nai ez... Pena diet! Artu duten erantzuna ez da oso egoki-egokia izan, bañan, zer egingo diet, ba nik? Nere buruak ez dit erantzun egokiagorik eman Etxe-aldera joan bear det. Izango da, an ere, asarrea ugari... Ai Mari Joxepa nerea! Ez dezu gau ona igaro bartko gaua! ... Adiskidetuko al zera? ...

(Etxera-aldera artzerakoan, Erretore Jaunarekin topo egiten du Pernando'k.)

Erretore J.- Zer ari zifan, Pernando?

Pernando.- Ezer ez, jauna! Ez al ditu ikusi emen igaro diran emakume biak?

Erretore J.- Ez, ba... Ez ditut ikusi.

Pernando.- Ez du ezer asko galdu. Zartagi-ipurdia baño zatarragoak ziran biak.

Erretore J.- Baña, gizona!...

Pernando.- Zatarrak eta lotsagabeak.

Erretore J.- Zozoak beleari...

Pernando.- Ala izango da, bear ba' da; baña iotsagabeak ziranik ezin ukatu.

Erretore J.- Zer egin dizute, ba?

Pernando.- Bear ez bezelako galdera bat.

Erretore J.- Eta galderaren antzekoa izango zan, noski, erantzuna ere?

Pernando.- Bai, ala izan da, jauna. Nik ez det errurik; neri ez zait beste erantzunik sortu.

Erretore J.- Ta nolakoa izan da, ba, zure erantzun ori?

Pernando.-Galderaren antzekoa. Ara, jauna. Ondo ezagutzen ditu berorrek baserrieko legeak. Astoak isatspean miñik artu ez dezan, trapu zar batekin biltzen degu guk lokarria; ondo daki berorrek ori. Ba, trapu zar orri begira gelditu zaizkit bi emakume oiek. Eta irripar txoro batekin.

"Zu, Pernando, galdetu dit batek, trapu ederra benetan astoari isatspean ipiñi diozun oril Ez dezu, ba, onelako trapurik salgai eukiko?" Au izan da galdera, jauna.

Erretore J.- Ta nolakoa izan da erantzuna?

Pernando.- Galderak merezi bezelakoa! Nik ez det onelako trapurik saltzen, erantzun diot. Bañan, onelako trapu baten gogoa baldin ba' dezu, nungo dendatan saltzen dan esango dizut. Eta berdin zitziola-ta, astoari isatsa jaso, ta "or dezu dendarako atea, erantzun diot; sartu zaiz barrura ta bertan emango dizute".

Erretore J.- Baña, gizonal...

Pernando.- Zer, ba? Nere bizkarretik parre egiten lagako al nion, ba?

Erretore J.- Giza-lege pixka bat duanak ez du orrelako erantzunik ematen, gizona.

Pernando.- Ez, e?...Ta, orrelako galderarik egiten al du giza-lege pixka bat duanak?

Erretore J.- Ez, Pernando, ez. Egia da ori ere...

Pernando.- Ortaz... "enpaz", jauna. Ta ori beste pekaturik egin ez ba' det, ez det uste pekatu aundirik egin dedanik.

Erretore J.- Aundiagoa egin-da zaude bart, Pernando.

Pernando.- Ni?

Erretore J.- Bai, zu.

Pernando.- Ez det uste, jauna! Oartzeke egingo nuan egin ba´det ere.
Ta oartzeke egiten dana ez omen-da pekatu ... Ala esan oi du
berorrek beintzat.

Erretore J.- Ez dezu Mari Joxepa´rentzat erruki aundirik!

Pernando.-Zer du, ba, Mari Joxepa´k? Gaxorik al dago?

Erretore J.- Ba-luke gaxotzeko ainbeste, gajoak!

Pernando.- Zer dala-ta?

Erretore J.- Zer dala-ta, galdetzen didazu? Zer egin diozu bart?

Pernando.- Nik ezer ez, Jauna!

Erretore J.- Ez zazu orrelakorik esan, gizona, Jaungoikoa lagun izan
ez ba´lu, alargun izan bear zenduan zuk gaur eta... Bart izan
dan gau otzarekin, euki dezu ba zuk zure emazte gajoa, atorra
utsean, etxetik kanpora, gau osoan!...

Pernando.- Nik?

Erretore J.- Zuk, bai!

Pernando.- Ori ez da egia! Nik ez det emaztea, atorra utsean, etxetik
kanpora, gau osoan, euki. Ala egon ba´da, berak ala nai
dualako egon da. Ez nik eutsi diodalako beintzat.

Erretore J.- Nork itxi dio, ba, atea?

Pernando.- Nik itxi det atea, gauero itxi oi dedan bezala...

Erretore J.- Ta... ez al zenekin Mari Joxepa etxetik kanpora zebillela?

Pernando.- Ara, jauna! Ordu aiek ez dira emakumeak etxetik kanpora
ibiltzeko orduak; eta atorra-utsean ibiltzeko gutxiago.

Erretore J.- Ara, Fernando...

Pernando.- Ara, jauna! Gauza bat besterik ez dago emen. Emakumeak
ez dute orainik "ni pekataria" esaten ikasi. Gizonak egiten
gaituzte beti pekatari. Ta ala ere, apaizentzat emakumearen
itza, Jaungoiko ber-beraren itzaren antzekoa da.

Erretore J.- Ez orrenbesteraño, Pernando! Iru egun parrandan igaro
dituan gizona ez da aingeru bat. Eta bere emazteari ezer
esateke, etxetik kanpora iru egun igarotzen dituan gizona,
gizon pekataria dala esango nuke nik.

Pernando.- Areso´ko pestak ziran, jauna!

Erretore J.- Ta, orrekin zer esan nai didazu?

Pernando.- Urte guztia lanean igarotzen duan gizonak, iru eguneko
oporra merezi duala, alegia.

Erretore J.- Lanak ez zaitu, ez, zu galduko, Pernando!...

Pernando.- Ez ta komeni ere. Aitarik gabe zer egin bear luteke nere amar seme-alabak? Ez bezaio Mari Joxepa'ri ezer sinistu... Ezkongai ba'lego gaur, nerekin ezkondu arterañoکو pakerik ez luke izango-ta...

Erretore J.- Ala uste al dezu?

Pernando.- Bai, jauna, bai!

Erretore J.- Nik bestera uste det, bai...

Pernando.- Beok ez dute emakumea ezagutzen.

Erretore J.- Ez?

Pernando.- Ez, jauna, ez!

Erretore J.- Ala izango, da bear ba'da. Dana dala, bart gaueko ori, zer izan zan?

Pernando.- Ezer ez! Goizeko ordu biak izango ziran Areso'tik etxeratu naizenean. Areso ez bait-dago atariko atean... Eta umeak ez esnatzearren, kox-kox jo det atea. Txakur amorratua baño asarreago irten zait Mari Joxepa leiora. Atea irikitzeکو eskatu diot, arren da arren, bañoan alperrik. Ez didala irikiko ta barrura sartu da berriro. Arekin ez izatekotan, ez dedala bizi nai, ta nik jakingo dedala zer egin, deadar egin diot orduan. Eta baratzako orma zarrera joan eta arri aundi bat artu andik eta "plast" potzura bota det. Nik ez dakit orduan Mari Joxepa'k zer pentsatu duan...

Erretore J.- Zer pentsatu bear zuan, ba? Zere burua erreکara bota dezula!

Pernando.- Dana dala, zoro bat egiñik atera da etxetik, atorra utsean, "Pernando, Pernando" deadarka, Nik etxeکو atea irikirik ikusi dedanean, etxera joan eta beti bezela itxi det etxeکو atea. Nik ez dakit geroko berririk.

Erretore J.- Ai, Pernando, Pernando... Ain biotz gogorreکو gizona ziñanik ez nuan uste. Nori, ta Mari Joxepa'ri egingo zenion, ba,ori?

Pernando.- Egia esango diot, jauna. Ez naiz ni zuzen-zuzena izango bear ba'da, bañoan, ordu aietan, atorra utsean, kalean dabillen emakumea ere, ezin zuzen-zuzena izan...

Erretore J.- Zer esaten ari zera, Pernando? Urrea bera baño piñagoa dezu Mari Joxepa, ta.

Pernando.- Ala dio berorrek beintzat. Ez du nik bezela ezagutzen!

Ikustekoak izango dira aren gaurko muturrak! Bañan ez nazala asarre -erazi; bestela txiki-txiki egingo det.

Erretore J.- Baña, gizona...

Pernando.- Bai, jauna, bai. Berorri bizi dan bezela biziko ba'nintz, ez nitzake asarretuko ni ere. Bañan bart aparirik ez, eta bazkaririk izateko itxurarik ere ez gaur. Ai, Don Manuel! Bildur naiz atzokoa ez bezelakoa ez ote dan izango gure gaurko asarrea. Bañan, etxera joan eta bazkaririk billatzen ez ba'det, ez dakit zer egingo dedan. Aspertua nago oraintxe bizimodu triste onekin!...

Erretore J.- Baña, Pernando! Bazkari baten gora-bera dala-ta...

Pernando.- Bazkari baten gora-bera ez da ezer, bañan eten-gabekoa izaten da gure etxeko garizuma, jauna.

Erretore, J.- Ara, Pernando. Ez da, bear ba'da, beste mundukoa izango nere gaurko bazkaria, baño, alkarrekin bazkalduko degu, gaurkoagarik, nai ba'dezu. Zoaz, ba, etxera; egin itzazu pakeak Mari Joxepa'rekin eta atoz gero gurera. Zerbait geiago gertatuko al digu Joxepa Antoni'k. Gero arte, ba, Pernando.

Pernando.- Gero arte, bai, jauna!

(Bere etxean ezkutatuko da Erretore Jauna)

Pernando.- Au zoriona! Uste-gabeko konbitia orain ere. Pesta-ondoa igarotzeko zer gauza oberik? Ez gaitu oraindik Don Manuel'ek ondo ezagutzen... Mari Joxepa'ren eta nere artean asarre asko izango dira bear ba'da, bañan asarrera ere oitu egiten da bat. Ondo oitua nago ni beintzat.

Gure etxeko muturrak, jatekoak ba'lira, ez genduke gose-bildurrik izango gurean. Nolakoak ote dira Mari Joxepa'ren gaurko muturrak? Aunditxo egin diot, izan ere, bartko ori ... Bañan, orrek ez du erremediorik!

(Bruxako poltxikotik opil batzuek aterako ditu)

Adiskidetuko ote dedan erosi ditut Billapranka'ko perian. Gozozala da-ta, adiskidetuko da, noski...

- III -

(Joxepa Antoni agertuko da iruditegian. Erretore-etxetik dator; aserre bizian etorri ere)

Joxepa Antoni.- Aizu, Pernando!

Pernando.- Zer dezu, Joxepa Antoni?

Joxepa Antoni.- Ostatutzat artu al dezu zuk gure etxea?

Pernando.- Zer ba?

Joxepa Antoni.- Erten gabe zaude gure etxean, ta "zer ba?" diozu? Zu bezelako alprojentzat lana egiteko ez nago ni... Gaurkoa izango dezu gure etxean egingo dezun azkeneko bazkaria. Nik jakingo det zer egin beste bein agertzen ba'zera...

Pernando.- Amorraikin egin zenidana egingo didazu geienez ere Joxepa Antoni! ...Baño alperrikoak izan ziran zure orduko alegiñak eta alperrikoak izango dira gero egingo dizkidazunak ere. Obe dezu, ba, asarrea bizkarretik bera bota... Ez al dezu opiltxo bat nai, Joxepa Antoni?

Joxepa Antoni.- Gorde zaizkiozu Mari Joxepa'ri opil oiek. Ez det nik zure opilik nai-ta.

Pernando.- Ederragoak al dira, ba, sakristauak ekartzen dizkizunak?

Joxepa Antoni.- Nik ez daukat zer-ikusirik sakristauarekin!...

Pernando.- Ori ez da egia, Joxepa Antoni. Nere begiak ez dira orain arte gezurtiak izan... Eta sakristaua etorriko ote dan bildur naiz.

Ain neskaxa polita bazera zu, iza ere... ta aserre onek dana zatartu egiten zaitu. Ez al dezu ixpilurik aldean?

Joxepa Antoni.- Ixpillua?

Pernando.- Bai, emakumea, bail Ez zenduke zure arpegirik ezagutuko. Zu orrela ikusi-ta, zer pentsatu bear du sakristauak? Zapuztu egingo zaitul...

Joxepa Antoni.- Zuk ez bezela maite nau ta bai maiteko ere ark beti.

Pernando.- Ori, bai, zerbait maite ba'zaitu beintzat.

Joxepa Antoni.- Zuk uste baño geiago maite nau ni arkl.

Pernando.- Laister ezkonduko zerate, beraz?

Joxepa Antoni.- Zuri zer ajola zaizu?

Pernando.- Neri ez, bañan, Erretore jaunari bai. Neskamerik gabe ta sakristaurik gabe geiditu bear du bat-batean gizajoak eta ori ez dago ondo, Joxepa Antoni... Erretore jaunak jakin bear ditu zuen asmoak. Eta zu ez ba'zera ausartzen, nik esango dizkiot gaur bazkaltzen ari geran bitartean.

Joxepa Antoni.- Ez dezu orrelakorik egingol...

Pernando.- Zergatik ez, ba?

Joxepa Antoni.- Nik nai ez dedalako!

Pernando.- Zuk nai ez dezulako?

Joxepa Antoni.- Bail!

Pernando.- Ondo dago, Joxepa Antoni, ondo dago. Ez diot ezer esango. Baño, goxoa izan dedilla gaurko bazkaria, e? Ez al dezute gaur amorrarik?

Joxepa Antoni.- Ez degu ez! Eta ez al dira geiago izango! Arriak berak ere jakin dute orduan gertatua...

Pernando.- Ala iristen al diozu?

Joxepa Antoni.- Bai, ala iristen diot.

Pernando.- Eta, emen dauden auek ere ba ote dakite, ba?

Joxepa Antoni.- Ez ba'dakite ere, laister jakingo dute, noski. Ez zaude zu ori ixillik gordetzeko-ta. Dana-dala, bazkaria gertatzera noa ni...

(Ta etxera biurtuko da Joxepa Antoni)

- IV -

Pernando.- (Goxo-goxo) Gero arte, Joxepa Antoni...

Joxepa Antoni.- (Etxean sartzerakoan) Juuuuuuummmmm...

Pernando.- Orrelaxe egiten du nere ikulluko beiak ere. Ori Joxepa Antoni, ori! Neskazar ernegatua ta arria baño zekenagoa... Ez ematearren, ez luke arkakosorik ere emango!... Ala gure sakristauarentzat añako emaztegaia ba-da! Ezkonduko ote dira, gero?

Ni bezelako senar bat bear luke orrek. Bai, jauna, bai! Nolakoa izan bear duan erakutsiko dion senar bat! Entzungo zenuten, noski, onezkero len aitaturako amorrai aiekin zer gertatu

zitzaidan? Amorraiak zeuzkala ta bazkaltzera etortzeko esan zidan Erretore jaunak. Atera zituan maiera Joxepa Antoni'k amorraiak... Amorraiak onenak sukaldean gelditu ziran, ordea. Sakristauarentzat, noski! Bai nik aguro igarri ere! ... Ta maieko amorraiei isatsetik eldu, aien buruak nere ao-parean ipiñi, ta zerbait galdetuko ba'nie bezela, itz egin nien; ixillik, ordea, amorrari aietako bakoitzari. Eta gero, aien erantzuna entzun naian bezela, nere belarri-parera eraman nuan amorrari aietako bakoitza...

Arri-arri, neri begira gelditu zan Erretore jauna.

"Bañan, zertan ari zera, gizona? galdetu zidan alako batean. "Zertan ariko naiz, ba? erantzun nion nik. "Ez al dira, ba, arrai auek uretan ibiltzen diran arraiak? Ba-ditut nik, jauna, Ameriketan senide arteko batzuk, eta aien berririk ez degu aspaldi auetan. Arrai auek an inguru aietan ibilliko zirala, bear ba'da, ta nere senide arteko aien berririk ba ote zuten galdetu diet" ... "Eta zer erantzun dizute?" galdetu zidan Erretore jaunak. "Zer erantzungo zidaten, ba" erantzun nion nik. "Auek gaztetxoak dirala, alegia, ta ez dirala ain urrutietan ibilli. Bañan, sukaldean ba-dirala, zarragoak eta aiek jakingo dutela zerbait, bear ba'da"... "Bai?" erantzun zidan Erretore jaunak, eta Joxepa Antoni'ri deitu, ta" Ekarri itzazu sukaldean gelditu diran amorraiak esan zion. Ameriketan dauzkan senide-arteko batzuen berri jakin nai luke onek eta, sukaldean gelditu diran amorraiak emango diotelakoan dago. Ekarri itzazu, ba, mesedez, sukaldean gelditu diran amorrari oiek, Joxe Antoni.

Zorrotza izan zan Joxepa Antoni'k egin zidan begirazuna. Ajola gutxi neri! Ekarri zituan noizbait... Lengoeri egindako sorginkeri berak egin nizkien nik nbestei ere. Nere erantzunaren zai-zai zegoan Erretore jauna. "Ta?" galdetu zidan azkenean. "Ara, ba, jauna" erantzun nion nik Joxepa Antoni artean an zegoala, "Zerbaiten zurrumurrua ba-dute auek, bañan, aien beri jakin nai ba'det, sukaldean gelditu dan amorraiak emango didala ziur-ziur, erantzun didate".

"Emakumea" esan zion orduan Erretore jaunak Joxepa Antoni'ri, zeorrek jango ez ba'dezu ere, ekarri zaiozu gizon oni amorrari ori; ea, bein ba'da ere, Ameriketa'ko berriak sustraitik jakiten ditudan"...

"Ara, jauna, erantzun zion orduan asarre Joxepa Antoni'k, Ameriketa'ko berriak sustraitik jakingo dituan ala ez, ez dakit nik; bañan gure amorrari guztiak sustraitik jango ditula, ori bai, ori ondo dakit"... Eta sukaldean gelditu zan amorrari eder ura maiera ekarri zuanean, egin nizkion amorrari ari ere nere sorgin-

galderak eta ezer esateke , nere amorraiak jaten asl nintzan. Eta alako batean, "eta azkenengo orrek zer esan dizu, ba, Fernando", galdetu zidan Erretore jaunak. Baita nik azkar erantzun ere: "A ... Oso ondo dirala; onerako asmoetan daudela... Aiek onera etortzen diranean, ondo izango dala Amezketak'ko Erretore jauna. Ta apetitu ona degun ezkeror, on egin deigutela amorraiak!"...

Ler egin-bearrean egin zuan algara Erretore jaunak, eta otso amorratuak bezela iges egin zuan Joxepa Antonik. Baña, neri zer? Begi onez, ala begi txarrez, gaur ere or ikusi bearko nau, ba...

Baña... Mari Joxepa'rengana joan bearrean naiz oraindik... Arekin pakeak egin bearrean naiz. Agur, ba, jaunak. Laister arte!

- V -

(Ikusleen eskubi-aldetik sartuko dira iruditegian Txomin eta Patxi, zaldunak. Ikusleen eskubi-aldetik izkutatu bear du Fernando ere. "Agur"ik ere egin gabe igaroko da Fernando, Txomin eta Patxi'ren albotik. Ez orde, Txomin oartzeko. Orregatik diotsa Txomin'ek)

Txomin.- Arraio!

Patxi.- Nor zan ori?

Txomin.- Ez al dezu ezagutu? Fernando Amezketarra!

Patxi.- Fernando Amezketarra?

Txomin.- Bai, Patxi. Fernando Amezketarra dezu ori.

Patxi.- Bizi da, beraz, Fernando?

Txomin.- Bizi? Ta oraindik biziko dana gañera! ... Orren gibelakez du gaitzik... Ez al dezu entzun eman didan erantzuna?

Patxi.- Entzungo ez nuan, ba? Ta zoro baten erantzuna iruditu zait, egia esan bear ba'det.

Txomin.- Zoro ona dago oril! ... Ondo askorik jaso det nik erantzun orren ziria. Azak eman dizkit, Patxi, azak,...

Patxi.- Azak? ...

Txomin.- Azak, bai, ta ondo egositakoak gañera... San Juan egunerako konbidatu du orrek bere burua. Orrekin igaz gertatu zitzaidana arrigarria izan zan, izan ere... Etixeruntz nijoan igaz San Juan-egunean. Bazkaltzeko ordua zan ain zuzen ere. Urreratu zitzaidan eta galdera bat egin nai zidala esan zidan. Ba'zan ura gizon bati egiteko galdera" "Emen Tolsa'n, esan zidan, San Juan-egunean bat bazkaltzera zuen etxera eraman nai dezutenean, nola esatendiozute?"... "Nik zerdakit, ba, erantzun nion. Ainbat eratarra esan leike, izan ere ori". "Bai, egia da, erantzun zidan berak, bañan, zuk nola esango zenioke?... " "Nola esango nioke, ba, erantzun nion nik orduan. Nik bazkaltzera eraman nai dedan ori, zu zerala egin dezagun. Ba, onela esango nizuke, gutxi gora-bera: Gaur gurekin bazkaldu bear dezu, Pernando... Nere emazteak ere poz aundia izango du zu maikide izaten ba'zaitu-ta"... Esan ba'nion, esan zion!... Nere emazteari poz ori ezin ukatuko ziola, ba, ta gurera zijoala bazkaltzera, erantzun zidan. Eta esan eta egin, nerekin eraman bear izan nuan.

Patxi.- Ez da egian izango?

Txomin.- Izango ez da, ba? Ala ere ez zitzaidan damutu gerora. Jateko denborarik izan al genduan, ba? Algara batean igaro genduan bazkari guztia. Ler ez beste guztiak egin giñuzen. Ori, gizona, oril Ez zan ez zoro-irterra gaur emen eman didan erantzuna. Ba-zuan ark piper min ugari...

Patxi.- Egia esango dizut, Txomin. Entzun izan ditut orren zenbait ateraldi, bañan, ez nuan uste egiazkoak ziranik ateraldi oiek. Erriak sortutako gizon xelebre bat zala uste nuan nik Pernando Amezketarra. Lentxuago jakin ba'nu!

Txomin.- Zer?

Patxi.- Ezer ez! Baña pozik egingo nuan berarekin berriketaldi bat. Guk entzun ez ditugun zenbait ateraldi ez ote ditu izan?!...

Txomin.- Ez zazu orren miñik izan! Pernando'ren kontuak jakin nai al dituzu?

Zaude pixka batean. Don Manuel'eri ots egingo diot. Laguna det. Pernando dala eta ez dala, zenbait algara gozo ez ote ditu egin DonManuel'ek. Ementxe bizi da bera...

- VI -

(Erretore-etxera joan eta kox-kox joko du atea
Txomin'ek. Bereala agertuko da Joxepa Antoni)

Txomin.- Egun on Jaungoikoa'k!

Joxepa Antoni.- Baita zuri ere!

Txomin.- Etxean al da Don Manuel?

Joxepa Antoni.- Etxean da bai, jauna.

Txomin.- Lagun batek agurtu egin nai duala ta jetxi dedilla mesedez.

Joxepa Antoni.- Ez al zenduke zuk igo nai?

Txomin.- Ez det astirik. Lagun batekin nago emen.

Joxepa Antoni.- Ondo dago. Esango diot bereala.

(Barru-aldean izkutatuko da J.A. Patxi'rengana
joango da Txomin).

Txomin.- Gizon alaia degu Dn. Manuel. Ez gera gaur goizeko
lagunak!...Amezke'tara etortzen naizen bakoitzean egoten
naiz ni Dn. Manuel'ekin. Ona emen bera...

(Don Manuel'engana pixka bat urreratu-ta).

Egun on, Don Manuel! Onik al zaude?

Erretore J.- Bai, Jaungoikoa'ri eskerrak. Zuk ere ez dezu okerragorik,
Txomin.

Txomin.- Ez, Jaungoikoa'ri eskerrak. Donosi'ko nere lagun bat dezu
au.

Erretore J.- (Patxi'ro eskua luzatuz) Pozten naiz?

Patxi.- Nerea da poza, jauna!

Txomin.- Oneraño etorri ezker, ezin, ba, zu agurtzeke joan...
Pernando'rekin topo egin degu oraintxe. Nere lagun onek ez
zuan ezagutzen, eta arekin ez egonaren miña dauka. Pernando
izan zitekenik ere ez omen zuan sinisten.

Erretore J.- Orain ezin esango du olakorik!

Pernando.- Eta, esaten duten bezain azkarra al da Pernando ori?

Erretore J.- Ez beti!... Esango dizut oraindik-orain gertatutako zerbait. Bere astoa lagun, joan zan bein Billapranka'ko perira. Komeni baño zerbait geitxego edango zuan, noski; Billapranka'n astoa utzi-ta etorri zan beintzat Amezketa'ra. Onera arterañoakoan ez zan bere astoarekin oroitu. Aren orduko estuasunak!... Zer esan bear zion emazteari? Estutasun artatik lagun batek atera zuan. "Astoa an egongo dek biar ere, motell" esan zion lagun onek. Mari Joxepa'ri gezur bat esatea besterik ez daukak. Ire lagun batek txal txikidun beia erosi duala, alegia, ta txal ori astogañean eramatearren utzi diokala astoa. Biar ekartzekotan gelditu dala, ta kito! Ta an billatuko dek biar astoa Billapranka'n, bai... "Lagunaren gezur hau ontzat artu zuan Pernando'k, eta etxeratu zan bezin laister, eta Mari Joxepa ezer esaten asi ez zedin, lagunak esan bezala, jalki zizkion Pernando'k gauza guztiak Mari Joxepa'ri ... Ez zion onek ezer erantzun. Ortan, oeratu ziran biak...

Goizean-goiz artu zuan, biaramonean, Pernando'k Billapranka'ko bidea. Astorik ez zan Billapranka'n ageri ... Mari Joxepa'ri zer esan asmatzen etorri zan Pernando Billapranka'tik, Amezketa'ra. Etxera sartu zan orduko, "zer? ez al dakarzu astorik?", galdetu zion Mari Joxepa'k. "Ez ba, erantzun zion Pernando'k . Txala bizkar-gañean zeramala, bultzada bat egin omen zion beiak eta pixkaren bat elbarritu-ta dago. Ikusgarria izan da astoak egin didan ongi-etorria! Nerekin etorri nai zuan gaixoak, baña ibiltzeak ez ziola mesederik egingo, ta bertan utzi det egun batzuetarako ba'da ere"...

Eta ontan, Pernando'k bere jarduna amaitu baño len, arrantzaka asi zan astoa ikulluan! ... Pernandoren larria!

"A kertena, esan zion Mari Joxepa'k. Ez al dezu ori entzuten? Gezurra asmatzeko ere burua izan ber du gizonak, ez zuk lepo-gañean daramakizun lapiko ori... Ez bat ... bi asto dauzkagu guk etxean!"

"Bi asto?" galdetu zion arritu-ta Pernando'k.

"Bi, bai, erantzun zion Mari Joxepa'k. Atzo eskeroztik ikulluan dagoana ... zu bestea!

Pernando bera baño lenago etorri bait-zan peritik
Pernando'ren astoa!

Patxi.- Arraioa! Ez da makala gizon orren emaztea ere! Ori erantzuna!

Erretore J.- Orregatik esan dizut len: buru azkarra ba' du ere Fernando'k, noizean bein jaso bear izaten ditula ark ere onelako ziri batzuek.

Txomin.- Jaso bear izaten dituan ziri auek ez dira asko izango, Don Manuel?

Erretore J.- Ez, Txomin, ez. Oso azkarra izan bearko Fernando'ri ziria sartukodiona. Orregarik gustatzen zait neri Mari Joxepa' ren ateraldia!

Txomin.- Nolako Peru alako Mari izango dira, nunbait, senar-emazteak...

Erretore J.- Nik baietz uste, Txomin. Dana dala, zure lagun onek Fernando-rekin jardun-aldi bat egin nai ba' du, gaur añako egokitasunik gutxitan izango du, noski. Gurean bazkaltzeko da gaur.

Txomin.- Orregatik esango zidan ark neri gaur bazkari ona duala...

Erretore J.- Ona ala txarra, guztiontzat izango da zerbait, bazkaltzen gelditu nai ba' dezute zuek ere. Nik zirikatuko nuke Fernando, ta Fernando nor dan ondo asko ikusiko luke zure lagun onek...

Patxi.- Eskerrik asko, Don Manuel!

Txomin.- Ez, Don Manuel! Ez daukagu gelditzerik. Zer egin asko degu gaur arratsaldean Tolosa'n.

Erretore J.- Zuek nai dezuten bezela... Neronek lagunduko dizutet bidean, eta izango dezute zer jarduna. Azkenik, gabeak bait dira Fernando' ren kontuak. Goazen ba, lagunak.

- VII -

(Ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko dira Erretore J., Txomin eta Patxi.)

Iruditegiko ao-aldeetik eta ikusleen eskubi-aldeetik ager bedi sakristaua. Iñork ikusiko ote duan bildurrez agertuko da. Erretore-etxeko atean, "koxkox" dei egingo dio Joxepa Antoni'ri)

Sakristaua.- Joxepa Antoni!

Joxepa Antoni.- (Goxo-goxo) Zu al ziñan?

Sakristaua.- Bakarrik al zaude?

Joxepa Antoni.- Bakar-bakarrik nago. Oraintxe joan da or zear Erretore jauna.

Sakristaua.- Ikusi det bai. Ez da, ala ere, nik nai bezin laister joan... Aren gaurko jardun-bearra!...

Joxepa Antoni.- Lagunak omen ziran...

Sakristaua.- Ala izango ziran noski. Mundu guztia du lagun, izan ere, gure Don Manuel'ek. Ta orrela ez dago zurekin bakarrik egoterik, Joxepa Antoni. Maite-miñez etortzen naiz ni onera, maite-ipui batzuk zuri esatera, bañan, ez alperrik! Maite-min ori nerekin dedala itzuli bear izaten det beti ... Ez da ni bezelako senargai errukarririk izango...

Joxepa Antoni.- Ez al dezu barrura etorri nai?

Sakristaua.- Ez, Joxepa Antoni, ez! Iñork ikusi-ta ere!... Obe degu emen itz egin. Eleizako kontuetan ari gerala pentsatuko dute onela... Ezkondu ere egin bearko degu, ba, egunen batean, Joxepa Antoni? Ni ezin ninteke zu gabe bizi!

Joxepa Antoni.- Ainbeste maite al nauzu?

Sakristaua.- Bai, Joxepa Antoni! Pena bat besterik ez daukat; zu lenago ez ezagututako penal Zenbat dantza-aldi eder ez ote genduan egingo alkarrekin, gaztetan ezagutu ba'zindut!...

Joxepa Antoni.- Ta orain, zergatik ez? Sasoiko naukazu ni oraindik!

Sakristua.- Ni ere bai, ba, Joxepa Antoni! Egingo al degu bertan saio bat?

Joxepa Antoni.- Bai, nai ba'dezu...

Sakristaua.- Altza, ba, Joxepa Antoni. Ekin dezaiogun!...

- VIII -

(Dantzarako prestatzen diranean Andre Malen agertukoda iruditegiko aotik eta ikusleen eskubi-aldetik. Zarra da ta apain-xamar beltzez jantzitakoa)

Andre Malen.- (Aitaren eginaz) Ene Jesus! Dantzan ekin bear ote diote, ba? (Andre Malen agertu bezin laister, arri-arri geldituko da Joxepa Antoni. Sakristaua, zer gertatzen ote dan begira geldituko zaio).

Joxepa Antoni.- Ez al dezu ori ikusten?

Sakristaua.- Nor?

Joxepa Antoni.- Atzetik datorkigun ori!

Sakristaua.- (Andre Malen'gana biurtu-ta) Madarikatua!

Andre Malen.- Dantzan asi bear ote zenuten bildurtu naiz!... Ez genuan besterik palta!... (Aitaren egiñaz) Erretore-etxeko neskamea ta eleizako sakristaua, alkarrekin dantzan ikustea, orixe palta zitzaidan, alajaña! Ene Jesus!

Joxepa Antoni.- Ta, zer ikusi duaka, ba, orrek?

Andre Malen.- Ez al dezu orrelakorik egingo, baldimetan, Joxepa Antoni! Zer esango luke gure Don Manuel'ek? (Aitaren egiñaz) Ene Jesus! Au mundua!

Sakristaua.- Baña, zertara etorri zera zu onera?

Andre Malen.- Zertara etorriko nintzan, ba? Izan ere, nik entzun dedana egia izatera... (Aitaren egiñaz) Ene Jesus! ... Au mundual...

Joxepa Antoni.- Zer erantzun dezu, ba, zuk?

Andre Malen.- Ez dezu asarretu bear, Joxepa Antoni ... Ez da beste munduko gauza nik jakin bear dedana-ta ... Ez al da egia izango... (Aitaren egiñaz) Ene Jesus!

Sakristaua.- Zure jardun onekin aspertu nauzu oraintxe! Ba-noa ni, Joxepa Antoni. Beti berdín iza bearko degu guk...

Andre Maien.- Ez zaitea joan, gizona!... Joxepa Antoni'k bezin ondo jakingo dezu zuk, nik jakin nai dedana-ta. Erretore Jauna'ri txerria ostu diotela, egia al da?

Sakristaua.- (Asarre) An datorren ark esango dizu. Agur, Joxepa Antoni!...

Joxepa Antoni.- Ni ere aspertu naiz, ba, oraintxe sorgin onen jardunakin!

- IX -

(Ikusleen ezker-aldeetik iskutatuko da sakristaua.
Etxe-barrean, berriz, Joxepa Antoni)

Andre Malen.- (Aitaren egiñaz) Ene Jesus! Ba-dira auek Erretore jaun

baten neskamearentzat itzak! Sorgiña nil! Ez ote naiz, ba, ni Andre Malen?

(Ikusleen eskubi-aldetik Fernando agertu)

Andre Malen.- Jaungoikoa ´k egun on. Fernando! Zure zai nengoan.

Pernando.- Nere zai?

Andre Malen.- Zure zai, bai!

Pernando.- Ni ez naiz oraindik alargundu, Andre Malen!...

Andre Malen.- Ta?

Pernando.- Mari Joxepa ´k osasun ona dauka oraindik eta urte batzuek itxoegin bearko dezula oraindik, nerekin ezkondu nai ba ´dezu, alegia...

Andre Malen.- Ez, ez, Fernando! (Aitaren egiñaz) Ene Jesus! Ori esango didazu, ba? Jesus, Maria ta Jose!

Pernando.- Ez al zaude, ba, nere zai?

Andre Malen.- Bai, baño, ortarako ez. Zuk uste ez arren, izan nituan nik, zu ez bezelako senargaiak gaztetan. Bai orixe!...

Pernando.- Ta, orregatik geldituko ziñan neskazar, ez da ala?

Andre Malen.- Ez, Fernando, ez. Txerri baten kontuak jakin nai nituzke nik ...

Pernando.- Eta nor da, ba, txerri ori?

Andre Malen.- Erretore jauna...

Pernando.- (Ez dio itza bukatzen utziko. Aitaren egiñaz) Jesus, milla bider!

Andre Malen.- Baña, Fernando! Utzi zaidazu itz egiten... Erretore jaunaren txerriaren berri jakin nai det. Erretore jaunari txerria ostu ziotela, egia al da Fernando?

Pernando.- Ala dio berak, beintzat! Eta Don Manuel ´ek ez du gezurrik esaten!...

Andre Malen.- Egia da, beraz (Aitaren egiñaz) Ene Jesus!

(Iruditegitik irtetzen asiko da A. Malen)

Pernando.- Ai zazu, Andre Malen! Lapurra ni ez naizela ere esaten du Don Manuel'ek eta Don Manuel'ek ez du gezurrik esaten...

Andre Malen.- Au mundua, Pernando... Au mundua!

(Ta Aitaren egiñaz izkutatuko da A. Malen ikusleen eskubi-aldetik)

- X -

Pernando.- Nundik atera du orrek orain txerri orren kontua? Txerri ori dala ta ez dala, ba-ditut nik lendik ere naiko kezka!... Don Manuel'ek berak ditu, ordea, erru guztiak. Zergatik galdetu bear zidan neri galdetu zidana?

Txerri bat il nai zuala, alegia, ta erria guztiarekin zorretan zegoelako, txerri-munik partitzen asten ba'zan, ezer gabe geldituko zala, ta ez zekiala ixilka il ala ez. Eta nik zer esango nion, ba? Agirian iltzeko, alegia, ta il-ondoren baratzeko ate-ondoan uzteko goizalde arte ta goizaldean etxe-barrenean izkutatzeko, ta ostu egin ziotela esateko gero... Zer esango nion, ba, nik? Apaiz batek gezurra esatea ez zala egoki-egoki, ba-ñan ori egin bearko zuala erantzun zidan. Eta ala egin zuan, egin ere...

Baña sortu zitzaidan neri burutazio txar bat. Ain guria zan txerria! Ta illundu zan bezin laister, joan eta neronek ostu nion txerria!...

Urrungo goizean etorri zitzaidan itun Erretore jauna ta, "Ai, Pernando", esan zidan, "Ez nuan besterik merezi. Ostu egin didate txerria!" "Bai, Don Manuel, bai", erantzun nion nik. Orrelaxe esan bear du berorrek. Ostu egin diotela... Ta danak sinistuko diote... Apaiz batek ez du gezurrik esaten-da". "Baña, Pernando, benetan ari naizela!"

"Baietz, Don Manuel, baietz", erantzun nion nik. Orrelaxe esan bear du berorrek."

Eta Don Manuel aserretzen asi zala ikusi nuanean, "Bai, Don Manuel, bai, sinisten diot, erantzun nion. Eta nere susmo txarrik izan e'z dezan, eta emen dagoen ezker, nere etxeko bazter guztiak ikusi bear ditu".

"Ezetx eta ezetx" ark ...

"Baietz eta baietz" nik ...

Eta etxeko bazter guztiak ikusi zituan arterañoiko pakerik ez nion eman.

"Ba-nekian, bai, nik lapurra ez ziñaka zu izango! ... Bañan, zuk ala nai izan dezulako ikusi ditut zure etxeko zokoak..."

Eta barkatzeko eskatu-ondoren, an joan zan guretik Don Manuel ona. Arek ez ikusi arren, etxean zegoan txerria! Aurraren seaskatik koltxoia kendu ta koltxoitzat ipiñi nuan txerria aurraren seaskan. Negar zegian aurrak koltxoi gogor aren gañean eta seaskari eragiten ari zan Mari Joxepa, Don Manuel'ek etxeko zoko guztiak ikustatu zituanean...

Umore ederrean jan genduan txerria, bañan orain dira emen kontuak, orain! Ba-datorkigu garizumea ta aitortu egin bear nik nere pekatu au. DonManueli berari aitortu bear gañera... Igaz Tolosa'n egin nuan eta aurtan emen egin bearko det. Zer pentsatuko ote luke bestela Don Manuel'ek? ...

- XI -

(Erretore jauna agertuko da ikusleen ezker-aldetik)

Erretore J.- Emen zera, beraz, Pernando? Egin al dituzu pakeak Mari Joxepa'rekin?

Pernando.- Egingo ez nituan ba?

Erretore J.- Ondo dago ... Bazkalduko al degu?

Pernando.-Bai, nai ba'du, jauna. Ba-da ori baño gauza zallagorik...

Erretore J.- Bai, noski, Pernando! Oraintxe jakin det, jakin ere ... Igazko zure aitorketa ez omen zan ain erreza izan, alegia...

Pernando.- Aurtengoa ez da, ba, errezagoa izango, Don Manuel!

Erretore J.- Utzi zaiozu pakean aurtengoari...

Pernando.- Bai, jauna, bai... Pakean uzteko modukoa da, bail!

Erretore J.- Ta, zer moduz konpondu ziñan igaz Tolosa'n?

Pernando.- Oso ondo, jauna!

Erretore, J.- Ez didate neri orrelakorik esan, ba?!

Pernando.- Ez zeukaten zer esan aunditik Tolosa'ko zaldun oiek!...

Erretore J.- Ikusi al dituzu, ba?

Pernando.- Ez nituan, ba, ikusiko?

Erretore J.- Ondo dago!

Pernando.- Nik ez dakit zaldun oiek zer esango zioten, baña nere igazko aitorketak ez zuan ezer partikularrik izan. Aukeratu nuan prallea extu-xamarra zan, bai... Ez zuan berorrek bezin errez barkatzen. Arkume baten kontua zan dana ere. Ta arkumea lapurtu izan ba'nu, ezer ez! Gogoarekin gelditu bear izan nuan... Eta zan bezela azaldu nion nik guztia pralleari.

Etxe-jabeari arkume bat eraman-bearrean arkitzen nintzala, ta nere arkumeak txiki-xamarra ziralako, auzoko borda batetik artu nai izan nuala arkume bat. Eta alegiñak egin arren, bordan utzi bear izan nuala, langa-tartetik ateratzerik izan ez nualako...

Asarretu zitzaidan prallea... Lapurtzeko asmoa izatea ta lapurtzea berdin zirala... Pekatu aundia zala nik egin nuan pekatua, ta ez zirala barkapenik emango, duro-erdi banako bi meza aterazitzen ez ba'nituan...

"Duro bat eman-bearrean naiz beraz?", galdetu nion nik orduan.

"Jakina, ba", erantzun zidan berak.

"Eta berorri orain ematea, berdin izango da, noski?", esan nion nik orduan.

"Bai, nai ba'dezu", erantzun zidan berak.

"Ondo dago. Barkapena artu-ondoren emango ditot, ba" erantzun nion nik. Eta barkapena eman zidanean, emakumeak aitortzen diran lekura joan, eta saretik eskeñi nion duroa...

"Ortik ez, gizona, ortik ez" esan zidan orduan pralliak.

"Bai, jauna, bai" erantuzn nion nik. "Emendik izan bear du"...

Asarretu zan nere prallea ta... "Sarea bitarte dala duroa ezin nezake artu? Ez al dezu ikusten, gizona?" deadar egin zidan pralleak.

"Ba, neri berdin gertatu zitzaidan arkumearekin" erantzun nion nik orduan. "Eta lapurtzeko asmoa ta lapurtzea berdin ba'dira, emateko amoa ta ematea ere berdin izan bearko dute, jauna". Eta besterik gabe irten nintzan aitorlekutik. Ori izan zan dana, jauna...

Erretore J.- (Irriparrez) Ta gutxi al derizkiozu?

Pernando.- Zer, ba? Ez da berori beintzat prallearen alde izango?

Erretore J.- Zergatik diozu ori?

Pernando.- Zergatik? Berorrek ere pralle ark besela esango ote duan bildur naizelako! Bazkaltzeko intentzioarekin etorri gerala ta bazkaldu degula alegia! ... Ta nere urdalla ez da gero, intentzioarekin bakarrik asetzen danetakoa...

Erretore J.- (Irriparrez) Ez gizona, ez! Ez gera intentzioarekin bakarrik geldituko. Gertatuko al zuan zerbait onezkero Joxepa Antoni´k. Goazen, ba, Pernando...

(Eta Erretore -etxeko bidea artuko dute biak)

(1.957)

ZAPIA

